Sin./Fdo.: MARÍA TERESA LAESPADA MARTINEZ - 2025-07-09
ENPLEGUA, GIZARTE KOHESIOA ETA BERDINTASUNA SUSTATZEKO SAILA-REN FORU DIPUTATUA
DIPUTADO/A FORAL DE DEPARTAMENTO DE EMPLEO, COHESIÓN SOCIAL E IGUALDAD
Sin./Fdo.: ELIXABETE ETXANOBE LANDAJUELA - 2025-07-17
AHALDUN NAGUSIA
DIPUTADO/A GENERAL
Akordioa/Acuerdo: DF 00079/2025 - Data/Fecha: 2025-07-17
BIZKAIKO FORU ALDUNDIA-DIPUTACION FORAL DE BIZKAIA - 2025-07-17
GZko 5.gaia onartuta - Aprobado, asunto 5) de OD



**BIZKAIKO FORU ALDUNDIAREN FORU DEKRETUA,** Zainlab programaren oinarriak eta deialdia onartzen dituena. Bizkaiko Lurralde Historikoan zaintzaileen lanbide-gaitasuna eta zaintzaileen enplegagarritasuna hobetzeko dirulaguntzak, 2025eko ekitaldikoak.

I

Enplegua, Gizarte Kohesioa eta Berdintasuna Sustatzeko Sailak helburu nagusi bat du enpleguaren arloan: langabezian dauden pertsonak laneratu daitezen lortzea eta, aldi berean, Bizkaiko enpresetan askotariko talentua sar dadin erraztea. Horretarako, lan-aukerak sustatzeko jarduera-ildo zenbait ezartzen dira, langabeziaren gizarte-kostu handiena jasaten duten langabeentzat (denbora luzeko langabeak, 45 urtetik gorakoak, emakumeak, gizartean bazterturik daudenak edo horren arriskua dutenak, eta gazteak) eta Bizkaiko enpresentzat, horrela modua izan dezaten behar dituzten profilak berenganatzeko (kontratazioko pizgarriak) eta laneratzea mesedetu dadin, zeina gauza egingarriagoa eta iraunkorragoa baita kasu batzuetan, enpresari autonomoaren edo enpresa kolektibo txikiaren formulen bitartez, autoenplegua sustatuz.

2025eko maiatzaren 15ean, Bizkaiko Foru Aldundiak 2024-2029 Enplegu Plana onetsi zuen. 2024-2029 Enplegu Planaren helburua da Bizkaiko Lurralde Historikoan laneratzeko gaitasuna defendatu, bultzatu eta hobetzeko gida izatea, bai eta Bizkaiko Foru Aldundiaren enplegu-politika aktiboei ekitate-, berdintasun- eta dibertsitate-ikuspuntu bat ematea ere. Ikuspuntu horretan, genero-ikuspegiak funtsezko garrantzia du.

2024-2029 Enplegu Plana Bizkaiko Foru Aldundiaren konpromiso aktiboa da, enplegua integraziorako eta gizarte-inklusiorako tresna eraginkorra bilakatu dadin. Helburu hori guztiz bat dator Garapen Jasangarrirako 2030 Agendarekin. Beraz, planaren printzipioak, erronkak, helburuak eta ekimenak bat datoz garapen jasangarriaren helburuekin (GJH) eta Gizarte Eskubideen Europako Zutabearekin.

**DECRETO FORAL DE LA DIPUTACIÓN FORAL DE BIZKAIA** por el que se aprueban las bases y convocatoria del programa Zainlab. Subvenciones para la mejora de la capacitación profesional de las personas cuidadoras y su empleabilidad en el ámbito del cuidado en el Territorio Histórico de Bizkaia, del ejercicio 2025

I

El objetivo prioritario del Departamento de Empleo, Cohesión Social e Igualdad en materia de empleo, es lograr la inserción laboral de las personas en situación de desempleo, y al mismo tiempo favorecer la incorporación de talento diverso en las empresas de Bizkaia y, para ello, se establecen diferentes líneas de actuación de promoción de la ocupabilidad, dirigidas a personas desempleadas que soportan el mayor coste social del desempleo (personas desempleadas de larga duración, personas mayores de 45 años, mujeres, personas en situación o riesgo de exclusión y personas jóvenes), a empresas de Bizkaia al objeto de que puedan incorporar los perfiles que requieren (incentivos a la contratación) y a favorecer la inserción laboral, en algunos casos más factible y sostenible, mediante fórmulas de empresario autónomo o de pequeña empresa colectiva, mediante el fomento del autoempleo.

El 15 de mayo de 2025, la Diputación Foral de Bizkaia aprobó el Plan de Empleo 2024 – 2029. El Plan de Empleo 2024-2029 tiene como objetivo servir de guía para la defensa, impulso y mejora de la ocupabilidad en el Territorio Histórico de Bizkaia, así como aportar una mirada de equidad, igualdad y diversidad a las políticas activas de empleo de la Diputación Foral de Bizkaia. Una mirada en la que la perspectiva de género tiene una importancia fundamental.

El Plan de Empleo 2024-2029 es un compromiso activo de la Diputación Foral de Bizkaia por hacer del empleo un elemento para la efectiva integración e inclusión social. Una aspiración en total consonancia con la Agenda de Desarrollo Sostenible 2030. Por tanto, con los principios, retos, objetivos e iniciativas del Plan están alineados con los Objetivos de Desarrollo Sostenible (ODS) y con el Pilar europeo de derechos sociales.

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: CBPH-2OAL-0915-VAZY
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

Bizkaiko Foru Aldundiko Enplegua, Gizarte Kohesioa eta Berdintasuna Sustatzeko Sailak, enpleguaren arloko gizarte-eragileekin, langabeekin, enpresekin eta sistemako gainerako entitateekin batera, jarduketa-plan bat garatu du, 2024-2029 aldiari begira, enplegu-politikak langabeak gizarteratzeko eta laneratzeko tresna eraginkor eta efiziente gisa kokatzeko.

El Departamento de Empleo, Cohesión Social e Igualdad de la Diputación Foral de Bizkaia, junto con los diferentes agentes sociales del ámbito del empleo, con las personas desempleadas, con las empresas y con el resto de entidades del sistema, ha desarrollado un plan de actuación, con visión 2024-2029, que tiene como objetivo situar las políticas de empleo como herramienta efectiva y eficiente para la inclusión social y laboral de las personas desempleadas.

Bizkaiko biztanleria gero eta zaharragoa da. Bizi-itxaropenek gora egin dute, eta, beraz, aurreikuspenen arabera, adineko pertsonentzako zaintza-zerbitzuen eskaera gero eta handiagoa da eta izango da. Pertsonek itxaropen handiagoak dituzte, bai lortu nahi duten bizi-kalitateari dagokionez, bai jasotzen dituzten zaintzen profesionaltasunari dagokionez.

La población de Bizkaia avanza hacia un envejecimiento creciente. Las esperanzas de vida aumentan y por tanto las previsiones apuntan a una mayor demanda de servicios de cuidados a personas mayores. Las personas cuentan con mayores expectativas tanto en la calidad de vida que desean como en la profesionalidad de los cuidados que reciben.

Adinekoen zaintzaren helburua ez da zaintzen kalitatea, bizi-kalitatea baizik. Adinekoen arretaren kontzepzio berri horren barruan zaintza profesionalak ematea nagusitzen da, arreta eta bizikidetza premietara egokitutako habitat funtzional batean. Helburua oinarrizko zainketei eraginkortasunez erantzutea da; aldi berean, pertsonen behar integralak aseko dituzten giroak behar dira, harremanak eta jarduerak sustatzen dira, eta pertsona horien biografia, balioak eta izaera bera ulertzen eta errespetatzen dira.

El cuidado de las personas mayores no tiene como objetivo la calidad de los cuidados sino la calidad de vida. En la nueva concepción de la atención a las personas mayores, prevalece la prestación de cuidados profesionales en un hábitat funcional y adecuado a las necesidades de atención y convivencia. Atendiendo con eficacia los cuidados básicos, que promueva ambientes, relaciones y actividades que satisfagan las necesidades integrales de las personas, comprendiendo y respetando su biografía, sus valores y su propia manera de ser.

Arretaren gunea erabiltzailea da, haren duintasuna, ongizatea, eskubideak eta erabakiak. Testuinguru berri honetan, beharrezkoa den arretan bilakaera-ildo berriak zehazteko beharrizana planteatzen da, eta, beraz, lanbide-rol berri baten eskakizuna.

El centro de la atención es la persona usuaria, su dignidad, su bienestar, sus derechos y sus decisiones. En este nuevo contexto se plantea la necesidad de definir nuevas líneas de evolución en la atención necesaria y, por tanto, la exigencia de un nuevo rol profesional.

Artatutako pertsonen artean arrisku-, hauskortasun- eta kalteberatasun-egoerak areagotzeak gero eta beharrezkoagoa eta balioetsiagoa egingo du, arreta-zerbitzuetako profesionalen artean, pertsonekiko prebentzio- edo babes-esku-hartzeak proaktiboki aurreratzea ahalbidetuko duten zantzuak edo seinaleak ahalik eta lasterren hautemateko gaitasuna. Ataza berri horien artean informazio horiek behar bezala bideratzeko eta komunikatzeko gaitasuna sartzen da.

El incremento de las situaciones de riesgo, fragilidad y vulnerabilidad entre las personas atendidas hará cada vez más necesaria y valorada, en las personas profesionales de los servicios de atención, la capacidad de detectar, tan precozmente como sea posible, signos o señales que permitan anticipar proactivamente intervenciones preventivas o protectoras con las personas. Incluyendo la capacidad de canalizar y comunicar adecuadamente estas informaciones.

Gero eta zaharragoa den biztanleriak irtenbide alternatiboak edo osagarriak behar ditu

La población, cada vez más envejecida, necesita soluciones alternativas o complementarias a las

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: CBPH-2OAL-0915-VAZY
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

egoitzetarako eta profesionalak ez diren edo familiakoak diren zainketetarako. Adinekoek etxean ahalik eta denbora gehien zahartzeko aukera izan behar dute, bizi-kalitate ona bermatuta, eta, beraz, beharrezkoa da etxeko zaintza profesionalizatzea.

Hori dela eta, dekretu honen bidez, SSCS0108 «Pertsonentzako arreta soziosanitarioa etxean» eta SSCS0208 «Mendekotasuna duten pertsonentzako arreta soziosanitarioa gizarte-erakundeetan» profesionaltasun-ziurtagiriak lortzea sustatu nahi da, bi ziurtagiriekin zerikusia duten gaiak konbinatzen dituen prestakuntza emanez. Prestakuntza horri «Mendekotasuna eta/edo desgaitasuna duten pertsonentzako arreta soziosanitarioa etxean eta erakundeetan» deritzo. Prestakuntza horrek autoprestakuntzako eta talde-gaikuntzako 6 modulu ditu.

Prestakuntza hori egindakoan, ikasleek Lanbide Heziketako Etorkizuneko Ikaskuntzen Euskal Institutuaren (EIEI) konpetentzia profesionalak ebaluatzeko eta egiaztatzeko prozeduran parte hartuko dute, aurreko paragrafoan zehaztutako ziurtagiriak lortzeko.

Ildo horretan, prestakuntzaren helburua da mendekotasuna eta/edo desgaitasuna duten pertsonei laguntza aldizkakoa, iraunkorra edo jarraitua ematea gizarte-erakundeetan edo beren etxean bertan, eguneroko bizitzako jarduera oinarrizkoak eta instrumentalak egin ditzaten, beren bizi-kalitatea eta ongizate integrala hobetuz, jarduera sozioemozionalak egiten lagunduz eta diziplinarteko taldeak diseinatutako prozedurak aplikatuz, pertsona horien autodeterminazioa, autonomia pertsonala eta independentzia funtzionala sustatzeko.

II

Bizkaiko Foru Aldundiari dagokio foru-dekretu honen xede den gaiaren gaineko eskumena, hala ondorioztatzen baita Bizkaiko Lurralde Historikoko Foru Erakundeen Hautapen, Antolaketa, Erregimen eta Funtzionamenduari buruzko otsailaren 13ko 3/1987 Foru Arauaren (aurrerantzean 3/1987 Foru Araua) 17.2 artikulua irakurrita. Azken horrek xedatzen du Foru Aldundiari dagozkiola araubide erkideko aldundien eskumeneko gaiak, eta, ildo

residencias y a los cuidados no profesionales o familiares. Las personas mayores, deben tener la opción de envejecer en su domicilio el mayor tiempo posible con la garantía de una buena calidad de vida, por lo que la profesionalización del cuidado en domicilio resulta necesaria.

Por ello, con este Decreto se pretende incentivar la obtención de los certificados de profesionalidad SSCS0108 «Atención sociosanitaria a personas en domicilio», y SSCS0208 «Atención sociosanitaria a personas dependientes en instituciones sociales», mediante una formación en la que se combinan materias de ambos certificados, y que se denomina «Atención sociosanitaria a personas en situación de dependencia y/o con discapacidad en domicilio y en instituciones». Esta formación contiene 6 módulos de autoformación y de capacitación grupal.

Una vez realizada esta formación, el alumnado participará en el Procedimiento de Evaluación y Acreditación de las Competencias Profesionales del Instituto Vasco de Aprendizajes Futuros en la Formación Profesional (IVAF) para la obtención de los certificados detallados en el párrafo anterior.

En este sentido el objetivo de la formación es el prestar apoyos intermitentes, permanentes o continuos a personas en situación de dependencia y/o con discapacidad en instituciones sociales o su domicilio, en la realización de actividades básicas e instrumentales de la vida diaria, mejorando su calidad de vida y bienestar integral, apoyando la realización de las actividades socio-emocionales y aplicando procedimientos diseñados por el equipo interdisciplinar, para potenciar su autodeterminación, autonomía personal e independencia funcional.

II

La competencia sobre la materia objeto de este decreto foral corresponde a la Diputación Foral de Bizkaia, de conformidad con el artículo 17.2 de la Norma Foral 3/1987, de 13 de febrero, sobre Elección, Organización, Régimen y Funcionamiento de las Instituciones Forales del Territorio Histórico de Bizkaia (en adelante Norma Foral 3/1987). Éste último dispone que corresponde a la Diputación Foral aquellos asuntos que son competencia de las

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: CBPH-2OAL-0915-VAZY
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

horretan, Toki-araubidearen oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 36.d) artikuluak ezartzen du probintziako diputazioen berezko eskumena dela «probintziako lurraldearen garapen ekonomiko eta soziala sustatzeko eta plangintza egiteko lankidetza ematea, arlo horretan beste herri-administrazioek dituzten eskumenekin bat etorriz».

diputaciones de régimen común y en este sentido, el artículo 36 d) de la Ley 7/1985, de 2 de abril, reguladora de las Bases de Régimen Local establece que es competencia propia de las diputaciones provinciales, «la cooperación en el fomento del desarrollo económico y social y en la planificación en el territorio provincial, de acuerdo con las competencias de las demás administraciones públicas en este ámbito».

Bestalde, Enpleguaren abenduaren 21eko 15/2023 Legearen 66. artikuluak eskumen hauek aitortzen dizkie foru-aldundiei: batetik, lurraldeko enplegu-planak onartzekoa, eta, bestetik, lurraldeko garapen ekonomiko eta sozialari bereziki lotutako enplegua sustatzeko ekintzak garatzekoa, bai eta bazterketa-egoeran edo -arriskuan dauden pertsonak gizarteratzera eta laneratzera bideratutakoak ere.

Por su parte, la Ley 15/2023, de 21 de diciembre, de Empleo (artículo 66) reconoce a las diputaciones forales competencia para aprobar planes territoriales de empleo y para promover acciones de fomento del empleo vinculadas singularmente al desarrollo económico y social del territorio, así como las dirigidas a la inserción sociolaboral de las personas en situación o en riesgo de exclusión.

Enplegua, Gizarte Kohesioa eta Berdintasuna Sustatzeko Sailaren egitura organikoa onesten duen Bizkaiko Foru Aldundiaren ekainaren 6ko 60/2024 Foru Dekretuaren arabera, sail honen helburua da Bizkaiko gizartean berdintasuna, elkartasuna, gizarte-kohesioa eta enplegua bultzatzeko politika publikoak sortu eta sustatzea, eta, horretarako, zerbitzuak ematen dizkie egoera pertsonalaren, sozialaren edo familia-egoeraren ondorioz bizimodu duin eta betea garatzeko zailtasunak dituzten pertsonei. Zeregin horretan, arreta berezia jartzen du tratu txarren biktima diren emakumeen kolektiboan eta gizarte-bazterkeriako egoeran edo egoera horretan geratzeko arriskuan dauden pertsonen kolektiboan. Enplegua, Gizarte Kohesioa eta Berdintasuna Sustatzeko Sailak, orobat, enplegua eta herritarren lan-gaitasunak sustatzen ditu, eta giza garapen iraunkorra bultzatzen, generoaren, dibertsitatearen kudeaketaren eta lankidetza zein garapenaren arloko politiken bidez.

Conforme al Decreto Foral 60/2024, de 6 de junio, de la Diputación Foral de Bizkaia, por el que se aprueba el Reglamento de Estructura Orgánica del Departamento de Empleo, Cohesión Social e Igualdad, este departamento tiene como misión la generación e impulso de políticas públicas favorecedoras de la igualdad, la solidaridad, la cohesión social y el empleo en la sociedad de Bizkaia, mediante la prestación de servicios a aquellos ciudadanos y ciudadanas que, a causa de su situación personal, social o familiar, tengan dificultades para desarrollar una vida digna y plena, centrando el foco de su atención en el colectivo de mujeres víctimas de maltrato, en el de las personas en riesgo o situación de exclusión social, el impulso y la promoción del empleo y las competencias laborales de la ciudadanía, así como en la promoción del desarrollo humano sostenible, diseñando políticas de género, de gestión de la diversidad y de cooperación y desarrollo.

## III

Dirulaguntzen programa hau jasota dago Enplegua, Gizarte Kohesioa eta Berdintasuna Sustatzeko Sailaren bigarren Dirulaguntzen Plan Estrategikoan (1. helburu estrategikoa, 1.10 jarduera-ildoa).

## III

Este programa de subvenciones está incluido en el segundo Plan Estratégico de Subvenciones del Departamento de Empleo, Cohesión Social e Igualdad (Objetivo Estratégico 1: línea de actuación 1.10.).

## IV

## IV

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: CBPH-2OAL-0915-VAZY
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

Dekretua prestatzean genero-ikuspegia txertatu da, honako hauek betez: 1/2023 Legegintzako Dekretua, martxoaren 16koa, Emakumeen eta gizonen berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria matxistarik gabe bizitzeko Legearen testu bategina onartzen duena (aurrerantzean 1/2023 Legegintzako Dekretua); 4/2018 Foru Araua, ekainaren 20koa, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerakoa (aurrerantzean 4/2018 Foru Araua); eta Bizkaiko Foru Aldundiaren 112/2024 Foru Dekretua, azaroaren 14koa, zeinaren bidez arautzen baita Bizkaiko Foru Aldundian generoaren araberako eraginaren aurretiazko ebaluazioa.

Ildo horretan, foru dekretu honen izapidetzean generoaren araberako eraginaren aurretiazko ebaluazioari buruzko txostena gehitu da.

Dekretu hau egiteko, kontuan hartu da Bizkaiko Foru Aldundiaren jardun-eremuan hizkuntza ofizialak erabiltzeko irizpideak ezartzen dituen maiatzaren 28ko 63/2019 Foru Dekretuan xedatutakoa.

En la elaboración del decreto se ha incorporado la perspectiva de género, en cumplimiento del Decreto Legislativo 1/2023, de 16 de marzo, por el que se aprueba el Texto Refundido de la Ley para la Igualdad de Mujeres y Hombres y Vidas Libres de Violencia Machista contra las Mujeres (en adelante Decreto Legislativo 1/2023), de la Norma Foral 4/2018, de 20 de junio, para la Igualdad de Mujeres y Hombres (en adelante Norma Foral 4/2018) y del Decreto Foral 112/2024, de 14 de noviembre, de la Diputación Foral de Bizkaia, por el que se regula la evaluación previa del impacto en función del género en la Diputación Foral de Bizkaia.

En este sentido, en la tramitación de este decreto foral se incorpora el Informe de Evaluación Previa del Impacto en función del Género.

El decreto se ha elaborado teniendo en cuenta los criterios de uso de las lenguas oficiales en el ámbito de actuación de la Diputación Foral de Bizkaia que regula el Decreto foral 63/2019, de 28 de mayo.

V

Foru dekretuak Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legean aurreikusitako erregulazio onaren printzipioei erantzuten die. Printzipio horiek Bizkaiko Foru Aldundian xedapen orokorrak egiteko prozedura arautzen duen ekainaren 15eko 87/2021 Foru Dekretuaren 3. artikuluan jasota daude, eta xedapen horien xedapenak prestatzean eta izapidetzean bete dira, hala nola beharrizanari eta eraginkortasunari, proportzionaltasunari, segurtasun juridikoari, gardentasunari, bizkortasunari eta efizientziari buruzko printzipioak, bai eta herritarren parte-hartzeari eta kontuak emateari buruzkoak ere.
Honako txosten hauek egin dira:

1. Genero-eraginaren aurretiazko ebaluazio-txostena.
2. Enplegua, Gizarte Kohesioa eta Berdintasuna Sustatzeko Sailaren txosten juridikoa.
3. Generoaren eraginaren aurretiazko ebaluazio-txostena.
4. Kontrol ekonomikoari buruzko txostena.
5. Legezkotasunari buruzko txostena.

V

El decreto foral responde a los principios de buena regulación previstos en la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas y recogidos en el artículo 3 del Decreto foral de la Diputación Foral de Bizkaia 87/2021, de 15 de junio, por el que se regula el procedimiento de elaboración de disposiciones de carácter general en la Diputación Foral de Bizkaia, cuyas disposiciones se han observado en su elaboración y tramitación, tales como los principios de necesidad y eficacia, proporcionalidad, seguridad jurídica, transparencia y celeridad y eficiencia, así como de participación ciudadana y rendición de cuentas.
Se han emitido los siguientes informes:

1. Informe de evaluación preliminar del impacto de género.
2. Informe jurídico del Departamento de Empleo, Cohesión Social e Igualdad.
3. Informe de Evaluación Previa del Impacto en función del Género.
4. Informe de control económico.
5. Informe de legalidad.

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: CBPH-2OAL-0915-VAZY
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

6. Klima-inpaktuaren ebaluazioa.

Dekretu hau salbuetsita dago ekainaren 15eko 87/2021 Foru Dekretuan aurreikusitako aurretiazko kontsulta publikoaren, entzunaldiaren eta jendaurreko informazioaren izapideetatik, 26. artikuluan jasotako salbuespenen barruan sartzen baita, xedapen horren edukiak ez baitu funtsean aldatzen Zainlab programaren oinarriak eta deialdia onartzen dituen Bizkaiko Foru Aldundiaren abuztuaren 23ko 132/2023 Foru Dekretuaren edukia. Partikularrei etxeetan zerbitzuak ematen dizkieten zaintzaileen lanbide-gaitasuna hobetzeko eta Bizkaiko Lurralde Historikoan etxez etxeko zaintzaren arloan haien enplegagarritasuna hobetzeko dirulaguntzak, 2023ko ekitaldirako.

6. Evaluación del impacto climático.

Este decreto queda exento de los trámites de consulta pública previa y audiencia e información pública previstos en el citado Decreto Foral 87/2021, de 15 de junio, ya que entra dentro de las exenciones contempladas en el artículo 26 al tratarse de una disposición cuyo contenido no modifica sustancialmente el contenido del Decreto Foral 132/2023, de 23 de agosto, de la Diputación Foral de Bizkaia por el que se aprueban las bases y convocatoria del programa Zainlab. Subvenciones para la mejora de la capacitación profesional de las personas cuidadoras de servicios a particulares en domicilios y su empleabilidad en el ámbito del cuidado en domicilio en el Territorio Histórico de Bizkaia, del ejercicio 2023

VI

Foru Administrazioak emandako dirulaguntzen araubide juridiko orokorra arautzen duen maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Arauaren 16.1 artikuluak (aurrerantzean 5/2005 Foru Araua) ahalmena ematen dio Bizkaiko Foru Aldundiari foru-dekretu bidez dirulaguntzak emateko oinarri arautzaileak onartzeko, zerbitzu juridikoen txostena jaso ondoren; eta 5/2005 Foru Araua garatzen duen Dirulaguntzen Erregelamendua onartzen duen martxoaren 23ko 34/2010 Foru Dekretuaren 41.1 artikuluak (aurrerantzean 34/2010 Foru Dekretua) oinarri arautzaileak eta deialdia batera izapidetzeko aukera ezartzen du, eta Bizkaiko Foru Aldundiaren Gobernu Kontseiluak du horiek onartzeko eskumena.

Halaber, otsailaren 13ko 3/1987 Foru Arauak, Bizkaiko Lurralde Historikoko Foru Erakundeen Hautapen, Antolaketa, Erregimen eta Funtzionamenduari buruzkoak, 39.k) artikuluan xedatzen duenez, foru diputatuei dagokie Bizkaiko Foru Aldundiari proposatzea, onets ditzan, beren sailen berezko gaiei buruzko foru-dekretuen proiektuak.

Enplegua, Gizarte Kohesioa eta Berdintasuna Sustatzeko foru diputatuaren ekimenez eta Bizkaiko Foru Aldundiak eztabaidatu ondoren,

XEDATZEN DUT:

VI

El artículo 16.1 de la Norma Foral 5/2005, de 31 de mayo, por la que se regula el régimen jurídico general de las subvenciones otorgadas por la Administración Foral (en adelante Norma Foral 5/2005) habilita a la Diputación Foral de Bizkaia para aprobar las bases reguladoras de la concesión de subvenciones mediante decreto foral, previo informe de los servicios jurídicos; y el artículo 41.1 del Decreto Foral 34/2010, de 23 de marzo, por el que se aprueba el Reglamento de Subvenciones, de desarrollo de la Norma Foral 5/2005 (en adelante Decreto Foral 34/2010), establece la posibilidad de la tramitación conjunta de las bases reguladoras y la convocatoria, residiendo en el Consejo de Gobierno de la Diputación Foral de Bizkaia la competencia para su aprobación.

Asimismo, el artículo 39 k) de la Norma Foral 3/1987, de 13 de febrero, sobre Elección, Organización, Régimen y Funcionamiento de las Instituciones Forales del Territorio Histórico de Bizkaia determina que compete a los diputados forales y a las diputadas forales proponer a la Diputación Foral de Bizkaia, para su aprobación, los proyectos de decreto foral en las materias propias de su departamento.

En su virtud, a iniciativa de la diputada foral de Empleo, Cohesión Social e Igualdad y previa deliberación de la Diputación Foral de Bizkaia.

DISPONGO

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: CBPH-2OAL-0915-VAZY
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

Artikulu bakarra. *Dirulaguntzen deialdia eta oinarri arautzaileak onartzea*
Zainlab programaren oinarriak eta deialdia onetsi dira. Bizkaiko Lurralde Historikoan zaintzaren arloan zaintzaileen lanbide-gaikuntza eta enplegagarritasuna hobetzeko dirulaguntzak, 2025eko ekitaldirako. Oinarrien testua beherago txertatu da.

Artículo único. *Aprobación de las bases reguladoras y la convocatoria de subvenciones.*
Se aprueban las bases y convocatoria del programa Zainlab. Subvenciones para la mejora de la capacitación profesional de las personas cuidadoras y su empleabilidad en el ámbito del cuidado en el Territorio Histórico de Bizkaia, del ejercicio 2025, cuyo texto se inserta a continuación.

## XEDAPEN GEHIGARRIA

Xedapen gehigarri bakarra. *Aurrekontu-izendapena.*

1. Foru-dekretu honen arabera eman daitezkeen laguntzak eta onurak ondoren aipatuko diren aurrekontuko partiden eta hornidūren kontura emango dira. Partida eta hornidura horiek aurrekontuei buruzko indarreko araudiaren arabera aldatu ahal izango dira.

Partida: 0904/G/241116/45100 2023/0039
Hainbat urtetarako gastua 120.000,00 euro

Zenbatekoa, ekitalditan banatuta:

2025. urtea: 80.000,00 euro

2026. urtea: 40.000,00 euro

Partida: 0904/G/241116/44300 2023/0039

Hainbat urtetarako gastua: 30.000,00 euro

Zenbatekoa, ekitalditan banatuta:

2025. urtea: 20.000,00 euro

2026. urtea: 10.000,00 euro

2. Dirulaguntza hauetan, gehienez ere 150.000,00 euro eman ahal izango dira, gutxi gorabehera. Kopuru hori, gehieneko zenbatekoei doakiela, 34/2010 Foru Dekretuaren 41. artikuluan xedatutakoaren arabera alda daiteke.

Halaber, aurrekontuetako kredituen arteko banaketa gutxi gorabeherakoa da; beraz, aurkeztutako eskabide kopuruaren arabera eta kontuan izanik izaera askotako erakunde onuradunak egon daitezkeela, foru-dekretu honetan ezarritako aurrekontuko izendapenak foru-dekretuan adierazitako partida ezberdinen artean banatu ahal izango dira, foru-agindu bidez, betiere ezarritako muga orokorra gainditu gabe.

## DISPOSICIÓN ADICIONAL

Disposición adicional única. *Consignación presupuestaria.*

1. Las ayudas y beneficios que puedan otorgarse con arreglo al presente decreto foral, se efectuarán con cargo a las siguientes partidas y dotaciones presupuestarias, sin perjuicio de que las mismas puedan ser modificadas de conformidad con la normativa presupuestaria vigente.

Partida: 0904/G/241116/45100 2023/0039
Gasto plurianual: 120.000,00 euros

Importe y distribución por ejercicios:

Año 2025: 80.000,00 euros

Año 2026: 40.000,00 euros

Partida: 0904/G/241116/44300 2023/0039

Gasto plurianual: 30.000,00 euros

Importe y distribución por ejercicios:

Año 2025: 20.000,00 euros

Año 2026: 10.000,00 euros

2. El importe total de las ayudas que se concedan tendrá como límite máximo estimativo la cantidad de 150.000,00 euros, y se podrá modificar conforme a lo previsto en el artículo 41 del Decreto foral 34/2010 en relación con los límites de las cuantías máximas.

Asimismo, la distribución entre los créditos presupuestarios tiene carácter estimativo, por lo que en función de las solicitudes presentadas y dada la distinta naturaleza de las posibles personas y entidades beneficiarias, las citadas consignaciones establecidas en este decreto foral podrán redistribuirse mediante orden foral entre las distintas líneas y partidas señaladas en este decreto foral, sin superar el límite global fijado.

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: CBPH-2OAL-0915-VAZY
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

Eskabide guztiak ebatzi ondoren aurrekontuaren gehieneko mugara heltzen ez bada, sobera geratutako zenbatekoa gastatzeko baimena ezeztatu egingo da, eta horretarako ez da beharrezkoa izango dekretu hau aldatzea

Si una vez resueltas todas las solicitudes no se alcanzara el límite presupuestario máximo, se procederá a tramitar la anulación de la autorización de gasto por el importe sobrante sin que sea obligatorio modificar este decreto.

3. Martxoaren 23ko 34/2010 Foru Dekretuaren 41.2. artikuluan ezarritakoaren arabera, eskabideak aurkezteko epea amaitu baino lehen aldatu ahal izango dira aurrekontu-kredituak, Gobernu Kontseiluak onetsitako foru dekretu baten bidez, kontuan izanda zein den, aurreikuspenen arabera, eskatutako dirulaguntzen zenbateko osoa. Hala eginez gero, eskabideak aurkezteko epea luzatu beharko da.

3. Los créditos presupuestarios podrán ser modificados antes de que finalice el plazo de presentación de solicitudes. La modificación se hará mediante Decreto foral aprobado en Consejo de Gobierno, tendrá en cuenta la cuantía total de las ayudas solicitadas previstas y, en su caso, se deberá ampliar el plazo de presentación de solicitudes. Todo ello conforme al artículo 41.2 del Decreto foral 34/2010.

4. Halaber, 34/2010 Foru Dekretuaren 43. artikuluaren arabera, aurrekontu-zuzkiduren zenbateko osoari 100.000,00 euro gehitu ahal izango zaizkio gehienez, kasu hauetan:

4. Igualmente, conforme al artículo 43 del Decreto foral 34/2010, la cuantía total de las diferentes dotaciones presupuestarias podrá ser ampliada en un importe adicional máximo de 100.000,00 euros, en los siguientes casos:

a) Kreditu-handitzeak, kreditu-sorrerak edo kreditu-gehitzeak onartzearen ondorioz kreditu erabilgarriak handitzen direnean, edo

a) Cuando exista un aumento de los créditos disponibles derivado de la aprobación de ampliaciones de crédito, generaciones o incorporaciones de crédito.

b) Aurrez ebatzitako deialdietatik datorren zenbateko gehigarria dagoenean, deialdi horietarako aurreikusitakoa baino txikiagoa.

b) Cuando exista cuantía adicional proveniente de convocatorias anteriores resueltas por importe inferior al previsto para las mismas.

Zenbateko gehigarria eraginkorra izan dadin, kredituaren erabilgarritasun-adierazpena egin beharko da, dirulaguntza emateko ebazpena eman baino lehen.

La efectividad de la cuantía adicional quedará condicionada a la declaración de disponibilidad del crédito, que deberá efectuarse en un momento anterior a la resolución de la concesión de la subvención.

Zabaltze hori horretarako eskumena duen organoak baimenduko du.

Dicha ampliación la autorizará el órgano competente para ello.

## AZKEN XEDAPENAK

## DISPOSICIONES FINALES

Azken xedapenetako lehenengoa. *Arauen garapenerako gaikuntza.*

Disposición final primera. *Habilitación para el desarrollo normativo.*

Ahalmena ematen zaio Enplegua, Gizarte Kohesioa eta Berdintasuna Sustatzeko Sailaren foru diputatuari, foru dekretu hau osatu edo garatzeko beharrezkotzat jotzen dituen xedapen guztiak eman ditzan.

Se habilita a la diputada foral del Departamento Foral de Empleo, Cohesión Social e Igualdad a dictar cuantas disposiciones considere necesarias para completar o desarrollar este Decreto foral.

Azken xedapenetako bigarrena. *Indarraldia.*

Disposición final segunda. *Vigencia.*

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: CBPH-2OAL-0915-VAZY
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

Foru-dekretuak 2025ean eta 2026an izango du indarraldia.

Tendrá vigencia durante los años 2025 y 2026.

Azken xedapenetako hirugarrena. *Indarrean jartzea.*

Disposición final tercera. *Entrada en vigor.*

*Bizkaiko Aldizkari Ofiziala*ean argitaratu eta biharamunean jarriko da indarrean foru-dekretu hau.

Este decreto foral entrará en vigor el día siguiente al de su publicación en el Boletín Oficial de Bizkaia.

Enplegua, Gizarte Kohesioa eta Berdintasuna Sustatzeko foru-diputatua / La diputada foral de Empleo, Cohesión Social e Igualdad. TERESA LAESPADA MARTÍNEZ.

Ahaldun Nagusia / La Diputada General. ELIXABETE ETXANOBE LANDAJUELA.

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: CBPH-2OAL-0915-VAZY
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

Zainlab programaren oinarriak eta deialdia. Bizkaiko Lurralde Historikoan zaintzaren arloan zaintzaileen lanbide-gaikuntza eta enplegagarritasuna hobetzeko dirulaguntzak, 2025eko ekitaldirako.

I. titulua.- *Xedapen orokorrak*

1. oinarria.- *Xedea*
2. oinarria.- *Parte-hartzaileak*
3. oinarria.- *Erakunde onuradunak*
4. oinarria.- *Dirulaguntza jaso dezaketen ekintzak*
5. oinarria.- *Laguntza, orientazioa eta lanerako aktibazioa*
6. oinarria.- *Prestakuntza*
7. oinarria.- *Bertaratze-ziurtagiria*
8. oinarria.- *Laguntzen zenbatekoa eta muga*
9. oinarria.- *Dirulaguntzaren zenbatekoa kalkulatzea*

II. titulua.- *Araubide juridikoa*

10. oinarria.- *Araubide juridikoa*
11. oinarria.- *Arau-hausteak eta zehapenak*
12. oinarria.- *Ez-betetzea eta itzulketa*
13. oinarria.- *Dirulaguntza erakunde onuradunaren ekimenez itzultzea*

III. titulua.- *Prozedura*

14. oinarria.- *Laguntza-eskabideak aurkezteko lekua, modua eta epea, eta ondorengo izapideak eta ESEPEan inskribatzea*
15. oinarria.- *Eskabidea egiteko beharrezko dokumentazioa eta elkarreragingarritasuna*
16. oinarria.- *Eskabidea zuzentzea edo hobetzea*
17. oinarria.- *Dirulaguntza emateko prozedura*
18. oinarria.- *Balorazio-irizpideak*
19. oinarria.- *Ebazpena*
20. oinarria.- *Errekurtsoak*
21. oinarria.- *Dirulaguntzari uko egitea*
22. oinarria.- *Dirulaguntza emateko ebazpena aldatzea*
23. oinarria.- *Emandako dirulaguntzak publiko egitea*
24. oinarria.- *Onuradunak eman zaion dirulaguntzaren zabalkundea egitea*
25. *oinarria.- Jakinarazpen elektronikoa*

IV. titulua.- Gauzatzea, justifikazioa eta kontrola

26. oinarria.- *Gauzatzeko epea*
27. oinarria.- *Justifikatzeko epea*
28. oinarria.- *Azpikontratatzeko baldintzak*
29. oinarria.- *Dirulaguntzak justifikatzea*
30. oinarria.- *Dirulaguntza ordaintzea*

Bases y convocatoria del programa Zainlab. Subvenciones para la mejora de la capacitación profesional de las personas cuidadoras y su empleabilidad en el ámbito del cuidado en el Territorio Histórico de Bizkaia, del ejercicio 2025.

Título I.- *Disposiciones generales*

Base 1.- *Objeto*
Base 2.- *Personas participantes*
Base 3.- *Entidades beneficiarias*
Base 4.- *Acciones subvencionables*
Base 5.- *Acompañamiento, orientación y activación laboral*
Base 6.- *Formación*
Base 7 -*Certificado de asistencia*
Base 8.- *Cuantía y límite de las ayudas*
Base 9.- *Cálculo del importe de la subvención*

Título II.- *Régimen jurídico*

Base 10.- *Régimen jurídico*
Base 11.- *Infracciones y sanciones*
Base 12.- *Incumplimiento y reintegro*
Base 13.- *Devolución de la subvención a iniciativa de la entidad beneficiaria*

Título III.- *Procedimiento*

Base 14.- *Lugar, forma y plazo en que deben presentarse las solicitudes de ayuda y subsiguientes trámites e inscripción en el REPPE*
Base 15.- *Documentación necesaria para la solicitud e interoperabilidad*
Base 16.- *Subsanación o mejora de la solicitud*
Base 17.- *Procedimiento de concesión*
Base 18.- *Criterios de valoración*
Base 19.- *Resolución*
Base 20.- *Recursos*
Base 21.- *Renuncia a la subvención.*
Base 22.- *Modificación de la resolución de concesión*
Base 23.- *Publicidad de las subvenciones concedidas*
Base 24.- *Difusión de la subvención concedida por la persona beneficiaria*
*Base 25.- Notificación electrónica*

Título IV.- Ejecución, justificación y control

Base 26.- *Plazo de ejecución*
Base 27.- *Plazo justificación*
Base 28.- *Condiciones de subcontratación*
Base 29.- *Justificación de las subvenciones*

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: CBPH-2OAL-0915-VAZY
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

31. oinarria.- *Dirulaguntza beste dirulaguntza batzuekin batera lortzea*
32. oinarria.- *Erakunde onuradunaren betebeharrak*
33. oinarria.- *Datuen babesa*
*34. oinarria.- Deslokalizazioa*

## I. TITULUA
## I. titulua.- *Xedapen orokorrak*

1. oinarria. *Xedea.*

Laguntzen xedea da zainketen eremuan parte hartzen duten pertsonak gaitzea, gai izan daitezen arreta soziosanitarioko profesionaltasun-ziurtagiria lortzeko bide ez-formalaren eta lan-esperientziaren bidez.

2. oinarria. *Parte-hartzaileak.*
Titulu honetan adierazitako ekintzak honako hauek jaso ahal izango dituzte: Bizkaian bizi diren pertsonak, direla landunak edo langabeak, beren kualifikazioa hobetu nahi dutenak zainketen arloko prestakuntzaren bidez, baldin eta arlo horretan esperientzia izan badute edo baldin badute.

3. oinarria. *Erakunde onuradunak.*

1. Erakunde onuraduntzat hartzen dira honako hauek:
a) Laneratzeko zailtasun bereziak dituzten pertsonak laneratzen diharduten Bizkaiko Lurralde Historikoko elkarteak, fundazioak eta irabazi-asmorik gabeko beste erakunde batzuk, baldin eta horrela egiaztatzen badute.
b) Egoitza fiskala Bizkaiko Lurralde Historikoan duten enpresak, baldin eta Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuak akreditutа badaude Prestakuntza Zentro edo Erakundeen Estatuko Erregistroan Euskal Autonomia Erkidegoaren esparruan edo erantzukizunpeko adierazpenaren bidez akreditatuta badaude, SSCG0017OV «Mendekotasuna eta/edo desgaitasuna duten pertsonentzako arreta soziosanitarioa etxean eta erakundeetan» prestakuntza egiteko.

Entitateek eta enpresek gutxienez hiru urteko esperientzia egiaztatu beharko dute zerbitzu partikularretako zaintzaileen kualifikazioa hobetzeko programetan, bai eta adinekoak etxean zaintzen lan egiten duten pertsonak laneratzeko eta/edo beste lanpostu batera bideratzeko programetan ere.

Base 30.- *Pago de la subvención*
Base 31.- *Concurrencia con otras subvenciones*
Base 32.- *Obligaciones de la entidad beneficiaria*
Base 33.- *Protección de datos*
Base 34.- *Deslocalización*

## TÍTULO I
## Título I.- *Disposiciones generales*

Base 1. *Objeto.*

Las ayudas tienen por objeto favorecer la capacitación de personas participantes en el ámbito de los cuidados para que éstas sean capaces de obtener el certificado de profesionalidad de atención sociosanitaria a través de la vía no formal y experiencia laboral.

Base 2. *Personas participantes.*
Podrán acceder a las acciones contempladas en este título, personas residentes en Bizkaia, ocupadas o desempleadas, que quieran mejorar su cualificación mediante la formación en el ámbito de los cuidados, y hayan tenido o tengan experiencia en este ámbito

Base 3. *Entidades beneficiarias.*

1. Se consideran entidades beneficiarias:

a) Las asociaciones, fundaciones y otras entidades sin ánimo de lucro del Territorio Histórico de Bizkaia que actúen a favor de la inserción laboral de personas con especiales dificultades de inserción, y así lo acrediten.

b) Empresas con domicilio fiscal en el Territorio Histórico de Bizkaia, que estén acreditadas por Lanbide-Servicio Vasco de Empleo en el Registro Estatal de Centros y Entidades de Formación en el ámbito de la Comunidad Autónoma del País Vasco o acreditada mediante declaración responsable para realizar la formación SSCG0017OV "Atención sociosanitaria a personas en situación de dependencia y/o con discapacidad en domicilios y en instituciones".

Las entidades y empresas deberán acreditar una experiencia mínima contrastada de tres años en programas de mejora de la cualificación de las personas cuidadoras de servicios particulares, además de en programas de inserción y/o recolocación de personas que trabajan cuidando a personas mayores en su domicilio.

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: CBPH-2OAL-0915-VAZY
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

2. Hala ere, egoitza sozial edota zerga-egoitza bera duten erakunde bi edo gehiago badaude (beren estutuen arabera), edo jarduera gehienak egoitza berean egiten badituzte, orduan, erakunde horietako batek baino ezin izango du dirulaguntza eskatu. Ondorio horietarako, lehenengo eskabidea hartuko da kontuan; gainerakoak ezetsita geratuko dira arrazoi horrengatik.

Halaber, Kontabilitate Plan Orokorra irabazi asmorik gabeko erakundeetara egokitzeko arauak eta irabazi asmorik gabeko erakundeen jarduera planaren eredua onesten dituen urriaren 24ko 1491/2011 Errege Dekretuaren 11. apartatuaren hirugarren zatiko I. eranskinarekin bat etorriz, taldeko, talde anitzeko edo bazkidetutako bi erakunde edo gehiago daudenean, horietako batek bakarrik eskatu ahalko du dirulaguntza.

3. Pertsona fisiko eta juridiko hauek ezin izango dute, inola ere, inolako laguntza edo dirulaguntzarik jaso:
a) Berdintasunerako eta sexuan oinarritutako bereizkeriarik ez izateko eskubidea urratzeagatik zehapen irmoa izatea administrazio-, lan- edo zigor-bidean.
b) Emakumeen eta gizonen arteko berdintasun-printzipioaren aurkakoak diren xede edo helburuak, onarpen- edo sarbide-sistema, funtzionamendua, ibilbidea, jarduera, antolaketa edo estatutuak.
c) Emakumeen eta gizonen berdintasunerako eta indarkeria matxistarik gabe bizitzeko Legearen testu bategina onartzen duen martxoaren 16ko 1/2023 Legegintzako Dekretuan edo Emakumeen eta Gizonen Berdintasun Eragingarrirako martxoaren 22ko 3/2007 Lege Organikoan ezarritako betebeharrak ez betetzea.

Halaber, ezin izango dira diruz lagundu sexuagatiko bazterkeria eragiten duten jarduerak edo ekintzak.

4. oinarria. *Dirulaguntza jaso dezaketen ekintzak.*

1. Dirulaguntza jaso dezakeen ekintza 2. oinarrian definitutako pertsonei zuzendutako laguntza-, orientazio-, aktibazio- eta prestakuntza-jarduketak diseinatzea eta gauzatzea izango da, aldi berean lortzeko «Pertsonentzako arreta soziosanitarioa etxean» eta «Mendekotasuna duten pertsonentzako arreta soziosanitarioa gizarte-erakundeetan» profesionaltasun-ziurtagiriak bide ez-formalaren

2. No obstante, cuando haya dos o más entidades, que, según sus estatutos, tengan el mismo domicilio social y/o fiscal o desarrollen principalmente sus actividades en el mismo domicilio, únicamente podrá solicitar subvención una de todas las entidades que tengan dichas características. Por lo que se tomará en cuenta la primera solicitud, quedando las posteriores desestimadas por este motivo.

Así mismo, cuando haya dos o más entidades del grupo, multigrupo o asociadas, conforme al anexo I, tercera parte, apartado 11.ª del Real Decreto 1491/2011, de 24 de octubre, por el que se aprueban las normas de adaptación del Plan General de Contabilidad a las entidades sin fines lucrativos y el modelo de plan de actuación de las entidades sin fines lucrativos, únicamente podrá solicitar subvención una de todas las entidades que formen parte.

3. En ningún caso podrán concurrir ni resultar beneficiarias de ningún tipo de ayudas o subvenciones las personas físicas y jurídicas:
a) Que hayan sido sancionadas en firme en vía administrativa, laboral o penal por vulneración del derecho a la igualdad y a la no discriminación por razón de sexo.
b) Cuyos fines u objetivos, sistema de admisión o acceso, funcionamiento, trayectoria, actuación, organización o estatutos sean contrarios al principio de igualdad de mujeres y hombres.
c) Que incumplan las obligaciones establecidas en el Decreto Legislativo 1/2023, de 16 de marzo, por el que se aprueba el Texto Refundido de la Ley para la Igualdad de Mujeres y Hombres y Vidas Libres de Violencia Machista contra las Mujeres, o en la Ley Orgánica 3/2007, de 22 de marzo, para la igualdad efectiva de mujeres y hombres.

Asimismo, no se podrán subvencionar las actividades o acciones que discriminan por razón de sexo.
Base 4. *Acciones subvencionables*

1. La acción subvencionable consistirá en el diseño y ejecución de actuaciones de acompañamiento, orientación, activación y formación destinadas a las personas definidas en la base 2 para obtener, al mismo tiempo, el certificado de profesionalidad de "Atención sociosanitaria a personas en domicilio" y el de "Atención sociosanitaria a personas dependientes en instituciones sociales" a través de la vía no formal; o de

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: CBPH-2OAL-0915-VAZY
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

bitartez, edo lan-esperientziaren bidez eskuratutako konpetentzia profesionalak egiaztatuz.

2. Erakunde onuradunak nahitaez erreferentziazko pertsona edo tutorea izendatu beharko du. Bera izango da bitartekaria eta hezitzailea laguntza-, orientazio-, aktibazio- eta prestakuntza-prozesu osoan zehar. Entitate eskatzailekoa izango da pertsona hori; haren plantillakoa izango da edo horretarako kontratatua.

3. Diruz lagundu daitekeen ekintza Bizkaiko Lurralde Historikoan garatu eta kokatu beharko da 2025eko irailaren 1etik 2026ko ekainaren 30era.

4. Aurkeztutako diruz lagundu daitekeen ekintzak nahitaez jaso beharko ditu laguntza, orientazio, lan aktibazioa eta prestakuntza jarduketak.

5. oinarria. *Laguntza, orientazioa eta lanerako aktibazioa.*

1. Laguntza eta orientazioa

a) Erakunde onuradunak berak egin beharko du, eta ezingo da azpikontratatu.
b) Helburua da laguntza eta orientazio pertsonalizatua eskaintzea etxeko zaintzen sektoreko lanarekin lotutako alderdiei buruz, eta baliabideen optimizazioa erraztea.

Informazioa, norbere egoeraren diagnosia, aholkularitza eta motibazioa emango dira zaintza profesionalaren zereginak egiteko.
c) Lan orientazioa pertsonalizatua eta indibiduala izango da, eta parte-hartzaileen beharren araberakoa.
d) Erakunde onuradunak gutxienez ordubete eta gehienez 10 ordu eskainiko dizkio parte-hartzaile bakoitzari.
e) Erakunde onuradunak jarduketak egin beharko ditu EEIren (Lanbide Heziketako Etorkizuneko Ikaskuntzen Euskal Institutua) "Konpetentzia profesionalak ebaluatzeko eta egiaztatzeko prozeduran" parte hartzeko, eta orientazioa emango du prozeduraren faseekin, parte hartzeko betekizunekin, egiaztapenaren efektuekin, prozedurako izen-emateekin, eta

la acreditación de competencias profesionales adquiridas por la experiencia laboral.

2. La entidad beneficiaria deberá designar obligatoriamente una persona de referencia o tutora, que ejercerá el papel de mediadora y educadora durante todo el proceso de desarrollo de las actuaciones de acompañamiento, orientación, activación y formación. Dicha persona ha de pertenecer a la propia entidad solicitante, formando parte de su plantilla o siendo contratada por la misma para tal fin.

3. La acción subvencionable ha de desarrollarse y localizarse en el Territorio Histórico de Bizkaia en el período comprendido desde el 1 de septiembre de 2025 hasta el 30 de junio de 2026.

4. La acción subvencionable que se presente deberá contener obligatoriamente las actuaciones de acompañamiento, orientación, activación laboral y formación.

Base 5. *Acompañamiento, orientación y activación laboral.*

1. Acompañamiento y orientación

a) Deberá ser realizada por la propia entidad beneficiaria, no podrá ser subcontratada.
b) Tiene por objeto ofrecer acompañamiento y orientación personalizada sobre aspectos relacionados con el trabajo en el sector de los cuidados, favoreciendo la optimización de recursos. Se proporcionará información, diagnóstico de la situación individual, asesoramiento y motivación para el desempeño de tareas de cuidado profesional.
c) La orientación laboral será personalizada, y de carácter individual, en función de las necesidades de las personas participantes.
d) La entidad beneficiaria dedicará un mínimo de 1 hora y un máximo de 10 horas por persona participante.
e) La entidad beneficiaria deberá realizar las actuaciones tendentes a la participación en el "Procedimiento de evaluación y acreditación de competencias profesionales" del IVAF (Instituto Vasco Aprendizajes Futuros), prestando orientación en relación con las fases del procedimiento, requisitos de acceso, efectos de la acreditación, inscripción en el Procedimiento,

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: CBPH-2OAL-0915-VAZY
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

prozesuan parte hartu bitarteko jarraipenarekin eta laguntzarekin lotuta.

Horrekin lotuta, Lanbide prestakuntzako sailburuordearen eta Lanbide Euskal Enplegu Zerbitzuko zuzendari nagusiaren 2021eko azaroaren 23ko ebazpenean xedatutakoa beteko da. Ebazpen horren bidez Euskal Autonomia Erkidegoan ezartzen da prozedura iraunkorra lan esperientziarekin edo prestakuntzako bide ez formaletan eskuratutako gaitasun profesionalak ebaluatu eta egiaztatzeko prozedura.

2. Lanerako aktibazioa

a) Erakunde onuradunak berak egin beharko du, eta ezingo da azpikontratatu.
b) Taldeko saioak egingo dira honako hauen berri emateko: prestakuntza-eskaintza, laneko araudia (lan-kontratuak, eskubide eta betebeharrak, hitzarmen kolektiboak) eta lan-merkatua. Hala, hauek landuko dira:
1. Enplegua modu aktiboan bilatzeko teknikak aplikatzea. Informazioa emango da, eta besteren kontura enplegua bilatzeko eskuragarri dauden tresna, teknika eta baliabideen oinarrizko erabilera sustatuko da, horren barruan sartuta baliabide telematikoak eta sare sozialen erabilera.
2. Horren barruan egongo da lan-merkatuari eta erabilgarriak izan daitezkeen enplegu-politika aktiboei buruzko datuak eta inguruabarrak jakinaraztea, erabiltzaileen enplegu-aukerak areagotzeko.

c) Lanerako aktibazio-saio bakoitzak gutxienez 2 ordu eta gehienez 4 ordu iraungo du.

Proiektuan partaide bakoitzak gehienez 8 aktibazio-ordu izango ditu.

6. oinarria. *Prestakuntza.*

1. Erakunde onuradunak berak egin ahal izango du, eta ezingo da azpikontratatu.

2. Prestakuntzaren ezaugarriak:

seguimiento y acompañamiento durante su participación en el proceso.

En este sentido se cumplirá lo dispuesto en la Resolución de 23 de noviembre de 2021, del Viceconsejero de Formación profesional y de la Directora General de Lanbide-Servicio Vasco de Empleo, por la que se implanta en el ámbito de la Comunidad Autónoma del País Vasco, el procedimiento abierto de manera permanente para la evaluación y acreditación de las competencias profesionales adquiridas por la experiencia laboral o vías no formales de formación.

2. Activación laboral

a) Deberá ser realizada por la propia entidad beneficiaria, no podrá ser subcontratada.
b) Consistirá en la realización de sesiones grupales de información sobre oferta formativa, normativa laboral (contratos de trabajo, derechos y obligaciones, convenio colectivo) y mercado laboral, que contendrán:
1º La aplicación de técnicas para la búsqueda activa de empleo. Contemplará la provisión de información, y manejo básico de los medios, técnicas y herramientas accesibles para la búsqueda de empleo, incluyendo los medios telemáticos y el uso de las redes sociales.

2º La comunicación sobre los datos o las circunstancias relativas al mercado de trabajo y las políticas activas de empleo que puedan resultar de utilidad para incrementar las oportunidades de empleo de las personas usuarias.

c) Cada sesión de activación laboral tendrá una duración mínima de 2 horas y máxima de 4 horas.

Cada persona participante en el proyecto podrá recibir un máximo de 8 horas de activación.

Base 6. *Formación.*

1. Deberá ser realizada por la propia entidad beneficiaria, no podrá ser subcontratada.

2. Características de la formación:

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: CBPH-2OAL-0915-VAZY
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

a) Prestakuntzak autoprestakuntzako eta aurrez aurreko talde-gaikuntzako modalitateak konbinatu beharko ditu.

b) SSCS0108 «Pertsonentzako arreta soziosanitarioa etxean» profesionaltasun-ziurtagiria eta SSCS0208 «Mendekotasuna duten pertsonentzako arreta soziosanitarioa gizarte-erakundeetan» profesionaltasun-ziurtagiria bide ez-formalaren bitartez lortzeko, 540 orduko prestakuntzak autoprestakuntzako modalitatea eta aurrez aurreko talde-gaikuntzakoa konbinatu beharko ditu, eta bermatu beharko du ikasleek, metodologia misto horren bidez, aipatutako kualifikazio profesionaletako prestakuntza-modulu bakoitzak jasotzen duen ordu kopuru bera egiten dutela.

Autoprestakuntzako eta aurrez aurreko talde-gaikuntzako ordu kopurua dekretu honen I. eranskinaren arabera emango da, honela: aurrez aurreko talde-gaikuntzako modalitatearen ordu kopurua 104 izango da guztira, 4 orduko 26 saiotan banatuta, eta autoprestakuntzako ordu kopurua 436 izango da.

c) Aurrez aurreko saioak zentroen instalazioetan bertan egingo dira, edo hitzarmen eta/edo alokairu bidez eskuratu dituztenetan. Edonola ere, instalazio guztietan egon beharko dira beharrezko ikus-entzunezko materialak eta honako lan hauek egiteko behar den ekipamendu soziosanitarioa: postura-aldaketak eta mobilizazioak; higiene-lanak xurgatzaileak eta zundak aldatuz/hustuz; ohe-aldaketak; lehen sorospenak eta bizi-konstanteak. Saio horiek nagusiki larunbatetan egingo dira.

d) Autoprestakuntza parte-hartzaileen beharrizanen arabera diseinatuko da. Prestakuntza-modalitate horretan erakunde onuradunak tutore bat izendatuko du, eta berak argituko ditu parte-hartzaileen zalantzak. Tutoretza-saioak bitarteko telematikoen edo telefonikoen bidez egin ahal izango dira.

a) La formación deberá combinar la modalidad de autoformación y de capacitación grupal presencial.

b) Para la obtención del certificado de profesionalidad SSCS0108 "Atención sociosanitaria a personas en el domicilio", y del certificado de profesionalidad SSCS0208 "Atención sociosanitaria a personas dependientes en instituciones sociales" a través de la vía no formal, la formación de 540 horas deberá combinar la modalidad de autoformación y de capacitación grupal presencial, garantizando que a través de esta metodología mixta el alumnado realiza el mismo número de horas que contempla cada módulo formativo de las mencionadas cualificaciones profesionales.

El número de horas de autoformación y de capacitación grupal presencial se impartirán conforme al anexo I de este decreto, del siguiente modo: el número de horas de la modalidad de capacitación grupal presencial será de un total de 104 horas divididas en 26 sesiones de 4 horas de duración, y 436 horas de autoformación.

c) En modalidad presencial serán llevadas a cabo en las propias instalaciones de los centros, o en las que pueda disponer a partir de acuerdos y/o alquileres, todas ellas dotadas con los materiales audiovisuales necesarios y el equipamiento sociosanitario necesario para la realización de cambios posturales y movilizaciones; higienes con cambio/vaciado absorbentes y sondajes; cambio de cama; primeros auxilios y constantes vitales; y se realizarán principalmente los sábados.

d) La autoformación se diseñará en función de las necesidades de las personas participantes. En esta modalidad de formación la entidad beneficiaria designará una persona tutora, a fin de aclarar las dudas que surjan a las personas participantes. Las tutorías se podrán realizar por medios telemáticos o telefónicos.

Se elaborará un material específico para que la persona participante pueda realizar la autoformación en su domicilio.

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: CBPH-2OAL-0915-VAZY
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

Material espezifikoa sortuko da parte-hartzaileek autoprestakuntza etxean egin dezaten.

SSCS0108 «Pertsonentzako arreta soziosanitarioa etxean» profesionaltasun-ziurtagiria eta SSCS0208 «Mendekotasuna duten pertsonentzako arreta soziosanitarioa gizarte-erakundeetan» profesionaltasun-ziurtagiria bide ez-formalaren bitartez lortzeko, autoprestakuntza diseinatzen denean ikasleak berak betetzeko moduko ikaskuntza-baliabideak txertatuko dira, eta baliabideok banakako laneko 436 orduren baliokideak izan beharko dute; gainera, ziurtatu beharko da kasuan kasuko profesionaltasun-ziurtagiriaren prestakuntza-modulu guztietako edukiak sartuta daudela.

e) Aurrez aurreko modalitatean, parte-hartzaile kopurua 8 eta 20 artekoa izango da prestakuntza-ekintza bakoitzeko.

Para la obtención del certificado de profesionalidad SSCS0108 "Atención sociosanitaria a personas en el domicilio", y del certificado de profesionalidad SSCS0208 "Atención sociosanitaria a personas dependientes en instituciones sociales" a través de la vía no formal, la autoformación se diseñará incluyendo recursos de aprendizaje de autocumplimentación equivalentes a 436 horas de trabajo individual, y asegurando que los contenidos de todos los módulos formativos de las cualificaciones profesionales correspondientes están integrados.

e) En modalidad presencial por cada acción formativa el número de personas participantes oscilará entre 8 y 20 personas.

5. Prestakuntza 2026ko ekainaren 30ean bukatuko da.

5. El plazo para la finalización de la formación será el 30 de junio de 2026.

7. oinarria. *Bertaratze-ziurtagiria.*

Base 7. *Certificado de asistencia.*

1. Dekretu honetan diruz lagundutako prestakuntza-ekintzetan parte hartzearen ondorioetarako, parte-hartzailetzat joko dira prestakuntza bukatu dutenak baldin eta gutxienez programatutako orduen % 75 egin badute, eta ongi aprobetxatu dutela egiaztatu beharko dute ezagutzen ebaluazioan.

1. A efectos de la participación en las acciones formativas subvencionadas en este decreto, se considerará que una persona participante ha finalizado la formación cuando haya realizado un mínimo de un 75 % de las horas programadas, demostrando un aprovechamiento adecuado mediante la evaluación de los conocimientos adquiridos.

2. Parte-hartzaileak prestakuntza-ekintza utzi duela ulertuko da aurrez aurreko orduen % 75 bete ez badu.

Parte-hartzaileren batek bertan behera uzten badu programa, beste ikasle batek har dezake haren lekua prestakuntzan. Ordezkapen hori egin ahal izateko, prestakuntza-ekintzarako programaturiko orduen % 25 bete aurretik egin behar da.

2. Se entiende que una persona participante ha abandonado la acción formativa cuando no haya asistido al mínimo del 75% de las horas programadas.

Si se produjeran abandonos por parte de personas participantes, se podrán incorporar otras personas a la formación en lugar de aquéllas. Dicha sustitución se admitirá siempre que se produzca antes de haberse cumplido el 25% de horas programadas para la acción formativa.

8. oinarria. *Laguntzen zenbatekoa eta muga.*

Base 8. *Cuantía y límite de las ayudas.*

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: CBPH-2OAL-0915-VAZY
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

1. Laguntzak itzuli beharrik gabeko dirulaguntzak izango dira, eta haien zenbatekoak ezin izango du inolaz ere gainditu dirulaguntzarako aurkeztutako laguntza-, orientazio-, aktibazio- eta prestakuntza-jarduera guztien benetako prezioa.

1. Las ayudas consistirán en subvenciones a fondo perdido, que no podrán superar en ningún caso el coste real del total de las actuaciones de acompañamiento, orientación, activación y formación presentados a subvención.

2. Eman beharreko dirulaguntzaren zenbatekoa kalkulatzeko, 9. oinarriko modulu ekonomikoak aplikatuko dira.

2. Para realizar el cálculo del importe de subvención a conceder se aplicarán los módulos económicos de la Base 9.

9. oinarria. *Dirulaguntzaren zenbatekoa kalkulatzea.*

Base 9. *Cálculo del importe de la subvención.*

Laguntza-, orientazio- eta prestakuntza-plan bakoitzari eman beharreko dirulaguntzaren zenbatekoa kalkulatzeko, honako modulu hauek aplikatuko dira:

Para realizar el cálculo del importe de subvención a conceder a cada plan de acompañamiento, orientación y formación se aplicarán los módulos económicos siguientes:

1. 1. MODULUA. Laguntza eta orientazioa

1. MODULO 1. Acompañamiento y orientación

1. modulua. Langile-gastuak: orientazioko eta laguntzako ordu-kopurua pertsona bakoitzeko* pertsona-kopurua* 37 euro.

Módulo 1. Gastos de personal: Número de horas de orientación y acompañamiento por persona* número de personas*37 euros.

Modulu hau zenbat pertsona-taldek ordu kopuru bera jasotzen duten adina aldiz kalkulatu beharko da. Parte-hartzaileak laguntzako eta orientazioko zerbitzuetatik jasotako ordu-kopuru beraren arabera taldekatuko dira. 1. biderkatzailea laneko orientazioaren eta lan-bitartekaritzaren kontzeptuan jasotako ordu-kopurua izango da. Eta 2. biderkatzailea izango da orientazio eta bitartekaritza kontzeptuan ordu kopuru bera jaso duten pertsonen kopurua,

Este módulo se deberá calcular tantas veces como grupos de personas que reciban el mismo número de horas. Las personas participantes se agruparán según el mismo número de horas recibidas de servicio de acompañamiento y orientación. El multiplicador 1 será el número de horas recibidas en concepto de orientación e intermediación. Y el multiplicador 2 será el número de personas que han recibido el mismo número de horas en concepto de orientación e intermediación.

Modulu honetan sartzen dira langileen zuzeneko gastuak, soldata-kostuak eta Gizarte Segurantzakoak, bai eta zeharkako gastuak eta material-gastuak edo aseguruak ere.

En este módulo se entienden incluidos los gastos directos de personal, costes salariales y de Seguridad Social, así como gastos indirectos y gastos de material, o seguros.

2. 2. MODULUA. Lanerako aktibazioa

2. MODULO 2. Activación laboral

Aktibatzeko talde-saio bakoitzeko, modulu hauek aplikatu beharko dira:
2.1 modulua. Langile-gastuak: aktibazio-orduen kopurua* 70,80 euro.
Modulu honetan sartzen dira langileen gastu zuzenak, soldata-kostuak eta Gizarte Segurantzakoak.

Por cada sesión grupal de activación se habrá de aplicar los siguientes módulos:
Módulo 2.1. Gastos de personal: Número de horas de activación*70,80 euros.
En este módulo se entienden incluidos los gastos directos de personal, costes salariales y de Seguridad Social.

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: CBPH-2OAL-0915-VAZY
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

2.2 modulua: funtzionamendu-gastuak. Aktibazio-orduen kopurua* ikasle kopurua* 1,54 euro.
Modulu honetan pertsonalekoak eta zeharkakoak ez diren lan-aktibazioko gastu guztiak sartzen dira, hala nola material didaktikoarenak, publizitatearenak, alokairuenak edota aseguruenak.

2.3 modulua: zeharkako gastuak: 2.1 moduluaren eta 2.2 moduluaren baturaren % 10 izango da.
Modulu honetan kontzeptu hauek sartzen dira: zuzendaritza-gastuak, administrazioko langileen gastuak, berokuntza, garbiketa-argiak, instalazioen asegurua, bulegoko materiala eta informatikaria, ura.
2. moduluaren zenbateko osoa talde-saio bakoitzeko 2.1 moduluaren, 2.2 moduluaren eta 2.3 moduluaren batura izango da.

3. MODULUA. 3. Prestakuntza-jarduera bakoitzeko modulu hauek aplikatu beharko dira kasuaren arabera:

a) Aurrez aurreko talde-gaikuntza

a).1. modulua. Langile-gastuak. Prestakuntza-orduen kopurua* 70,80 euro:

Modulu honetan jasoko dira irakasleen soldaten kostuak eta Gizarte Segurantzarenak.

a).2. modulua. Funtzionamendu-gastuak:
Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko zuzendari nagusiaren 2024ko ekainaren 19ko Ebazpenean jasotako prestakuntza-espezialitateetarako (ebazpen horren bidez argitaratzen da batez ere langabeentzat den 2024.-2025. urteetarako prestakuntza-eskaintza finantzatzeko dirulaguntzen deialdia, Euskal Autonomia Erkidegoan Enplegurako Lanbide Heziketa arautzen duen maiatzaren 31ko 82/2016 Dekretuaren esparruan), honako hau aplikatuko da: aipatutako ebazpen horretako A) apartatuan («Aurrez aurreko modalitatean emandako ekintzetarako modulu ekonomikoak») jasotako B modulua: «Funtzionamendu-gastuak»; b.2.2. «Profesionaltasun-ziurtagiriak eskuratzera bideratutako prestakuntza-ekintzak».

Modulu hori era honetara aplikatuko da: prestakuntza-orduen kopurua* ikasle-kopurua* aurreko atalean jasotako modulu ekonomikoa.

Módulo 2.2: Gastos de funcionamiento. Número de horas de activación* número de alumnos*1,54 euros.
Este módulo incluye todos los gastos de activación laboral que no son de personal ni indirectos, tales como los de material didáctico, publicidad, alquileres o seguros.

Módulo 2.3: Gastos indirectos: ascenderá al 10% de la suma que resulte del Módulo 2.1 más el Módulo 2.2.
Este módulo incluye conceptos como: gastos de Dirección, gastos de personal administrativo, calefacción, alumbrado limpieza, seguro de instalaciones, material de oficina e informático, agua.

El importe total del Módulo 2 por cada sesión grupal será la cantidad que resulte de la suma del Módulo 2.1., del Módulo 2.2. y del Módulo 2.3.

3. MODULO 3. Formación, por cada acción formativa se habrá de aplicar, según los casos, los siguientes módulos:

a) Capacitación grupal presencial

Módulo a).1. Gastos de personal: Número de horas de formación*70,80 euros.

En este módulo se entienden incluidos los costes salariales y de la Seguridad Social del personal docente.

Módulo a).2. Gastos de funcionamiento:
Para las especialidades formativas contempladas en la Resolución de 19 de junio de 2024 del Director General de Lanbide-Servicio Vasco de Empleo, por la que se procede a la publicación de la convocatoria de subvenciones para financiar la oferta formativa 2024-2025 dirigida prioritariamente a las personas trabajadoras desempleadas, en el marco del Decreto 82/2016, de 31 de mayo, por el que se ordena la Formación Profesional para el Empleo en Euskadi, se aplicará el Módulo B «Gastos de funcionamiento» previsto en el apartado A) Módulos económicos para acciones impartidas en modalidad presencial; b.2.2 «Acciones formativas dirigidas a la obtención de certificados de profesionalidad», previsto en la citada resolución.

Este módulo se aplicará del siguiente modo: número de horas de formación* número de alumnos* módulo económico previsto en el párrafo anterior.

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: CBPH-2OAL-0915-VAZY
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

Modulu hori kalkulatzeko, prestakuntza-ekintzaren hasierako ikasle kopurua kontuan hartuko da.

A efectos de cálculo de este módulo, se considerará el número de personas alumnas al inicio de la acción formativa.

a).3. modulua. Zeharkako gastuak: a).1 moduluaren eta a).2 moduluaren baturaren %10 izango da.
Modulu honetan kontzeptu hauek sartzen dira: zuzendaritza-gastuak, administrazioko langileen gastuak, berokuntza, garbiketa-argiak, instalazioen asegurua, bulegoko materiala eta informatikaria, ura.
Prestakuntza-jarduera bakoitzeko a) Moduluaren zenbateko osoa a).1 moduluaren, a).2 moduluaren eta a).3 moduluaren batura izango da.

Módulo a).3. Gastos indirectos: ascenderá al 10% de la suma que resulte del Módulo a).1 más el Módulo a).2.
Este módulo incluye conceptos como: gastos de Dirección, gastos de personal administrativo, calefacción, alumbrado limpieza, seguro de instalaciones, material de oficina e informático, agua.
El importe total del Módulo a) por cada acción formativa será la cantidad que resulte de la suma del Módulo a).1. y del Módulo a).2 y del Módulo a).3.

b) Autoprestakuntza

b) Autoformación

b).1. modulua. Tutoretzak. Langile gastuak: Tutoretza saioen ordu kopurua * 50 euro. Gehienez ere 12.000,00 euro.

Módulo b).1. Tutorías. Gastos de personal: Número de horas de tutorías* 50 euros. Hasta un máximo de 12.000,00 euros.

Modulu horretan kontzeptu hauek daude besteak beste: tutoretzak, kontsulta eta zalantzen telefono bidezko arreta...
b).2. modulua. Maleta pedagogikoa: 300,00 euro parte-hartzaile bakoitzeko. Gehienez ere 12.000,00 euro.

Este módulo incluye conceptos como: tutorías, atención telefónica a consultas dudas.

Módulo b).2. Maleta pedagógica: 300,00 euros por persona participante. Hasta un máximo de 12.000,00 euros.

Modulu horren barnean dago autoprestakuntzarako materialak prestatu, inprimatu eta eskuragarri jartzea.
Prestakuntza ekintza bakoitzeko b) moduluaren zenbateko guztia kalkulatzeko b).1. eta b).2. moduluak batuko dira.

Este módulo incluye los gastos derivados de la preparación de los materiales de autoformación, la impresión, y puesta a disposición.
El importe total del Módulo b), por cada acción formativa, será la cantidad que resulte de la suma del Módulo b).1. y del Módulo b).2.

c) Prestakuntza-jarduera bakoitzeko 3. Moduluaren zenbateko osoa a) moduluaren, eta b) moduluaren batura izango da.

c) El importe total del Módulo 3 por cada acción formativa será la cantidad que resulte de la suma del Módulo a) y del Módulo b)

## II. Titulua.- Araubide juridikoa

## Título II.- Régimen jurídico

10. oinarria. *Araubide juridikoa*

Base 10. *Régimen jurídico*

1. Dekretu honetan aipatzen diren dirulaguntzek honako arau hauei jarraituko diete: dekretu honi beroni, laguntzak emateko foru aginduei, 5/2005 Foru Arauari eta hura garatzen duen erregelamenduari (34/2010 Foru Dekretuaren bidez onetsiari) eta Administrazio Zuzenbideko gainontzeko arauei. Halakorik ezean, Zuzenbide Pribatuko arauak aplikatuko dira.

1. Las subvenciones a que se refiere este decreto se regirán por lo dispuesto en el mismo, y en las órdenes forales de otorgamiento, así como por lo establecido en la Norma Foral 5/2005 y su reglamento de desarrollo aprobado por Decreto foral 34/2010, por las restantes normas de derecho administrativo y, en su defecto, se aplicarán las normas de derecho privado.

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: CBPH-2OAL-0915-VAZY
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

Administrazio-prozedurari dagokionez dekretu honetan jasotzen ez denerako, aplikatu beharrekoak izango dira Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legea eta Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legea, bai eta bere izaeragatik aplikatu daitekeen beste edozein xedapen ere.

En lo no previsto en este decreto en cuanto a procedimiento administrativo, será de aplicación la Ley 39/2015, de 1 de octubre, de Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas, la Ley 40/2015, de 1 de octubre, de Régimen Jurídico del Sector Público, y cualquier otra disposición que por su naturaleza pudiera resultar de aplicación.

2. Dekretu honetan aurreikusten diren laguntzak ez dira estatu-laguntzak Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Tratatuaren 107.1 artikuluan ezarritakoaren arabera; izan ere, enpresari ez dakarkiote mozkinik, eta ez diete ekoizpen edo enpresa batzuei mesederik egiten beste batzuen kaltetan. Beraz, salbuetsita daude tratatu horren 108.3 artikuluan ezarritako jakinarazpen-prozeduratik.

2. Las ayudas previstas en este decreto no constituyen ayudas de estado en los términos establecidos en el artículo 107.1 del Tratado de Funcionamiento de la Unión Europea, dado que no suponen un beneficio para una empresa ni favorecen a determinadas producciones o empresas en detrimento de otras. Por tanto, quedan excluidas del procedimiento de notificación previsto en el artículo 108.3 de dicho tratado.

11. oinarria. *Arau-hausteak eta zehapenak*

Erakunde batek 5/2005 Foru Arauaren IV. tituluan azaltzen diren arau-hausteetako bat eginez gero («Dirulaguntzen arloko arau-hausteak eta administrazio-zehapenak»), zehapena ezarriko zaio, behar den zehapen-espedientea egin ondoren, kontuan harturik zer xedatzen den 39/2015 Legean eta 40/2015 Legean, bai eta Euskal Administrazio Publikoen zehatzeko ahalari buruzkoa martxoaren 16ko 1/2023 Legean ere.

Base 11. *Infracciones y sanciones*

La comisión por parte de la entidad beneficiaria de alguna de las infracciones previstas en el título IV, «Infracciones y sanciones administrativas en materia de subvenciones», de la Norma foral 5/2005, será sancionada, previa incoación del expediente sancionador, conforme a lo dispuesto en la Ley 39/2015, la Ley 40/2015, y según lo establecido en la Ley 1/2023, de 16 de marzo, de la potestad sancionadora de las Administraciones Públicas Vascas.

12. oinarria. *Ez-betetzea eta itzulketa*

1. Honako kasu hauetan, baldintzak ez direla bete ulertuko da: laguntzak jaso dituzten erakunde onuradunek foru-dekretu honetan, dirulaguntza emateko ebazpenean edo aplikatu beharreko gainerako arautegian ezarritako baldintzetako bat betetzen ez dutenean, bai eta 5/2005 Foru Arauaren 33. artikuluan ezartzen diren kasuetan ere.

Base 12. *Incumplimiento y reintegro*

1. Se considerará que existe incumplimiento, cuando las entidades beneficiarias de las ayudas no cumplan las condiciones establecidas en el presente decreto, o en la resolución de otorgamiento, o las establecidas en la demás normativa de aplicación, así como en los supuestos determinados en el artículo 33 de la Norma foral 5/2005.

2. Ez-betetzea era honetara mailaka daiteke:

a) Baldintzetako bat edo batzuk ez betetzeak edo epearen barruan jardueraren zati bat bakarrik burutzeak dirulaguntzaren zati bat bakarrik ordaintzea ekarriko du, edo, hala badagokio, dirulaguntzaren zati bat itzuli behar izatea. Itzulketa hori kalkulatzeko, jarduera osotik hartutako zatiaren proportzio bera erabiliko da.

2. Además el incumplimiento se podrá graduar del siguiente modo:

a) El cumplimiento parcial de las condiciones o la realización en plazo de solo una parte de la actividad, dará lugar al pago parcial de la subvención o, en su caso al reintegro también parcial aplicando la proporción en que se encuentre la actividad realizada respecto de la total.

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: CBPH-2OAL-0915-VAZY
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

b) Dirulaguntza kobratu eta gero, egindako gastu guztiak edo zati bat ordaindu gabe edukitzeak dirulaguntza itzuli behar izatea ekarriko du. Kasu horretan, dirulaguntza jaso dezaketen gastu egotzi guztietatik ordaindu gabeko gastuek osatzen duten proportzioaren araberakoa izango da dirulaguntzaren itzulketa.

b) La falta de pago de todos o parte de los gastos realizados, después de cobrada la subvención, producirá el reintegro de la subvención en proporción a los gastos no pagados respecto al total de gastos subvencionables imputados.

c) Dirulaguntza bat eman denean gastu-aurrekontu bat erreferentzia legez hartuta, baina egotzi eta justifikatutako gastua aurrekontuan ezarritakoa baino txikiagoa bada

c) Cuando se concede la subvención tomando como referencia un presupuesto de gasto, y sin embargo el gasto imputable justificado es inferior al presupuestado

3. 34/2010 Foru Dekretuaren 80. artikuluaren arabera, dirulaguntza itzultzeko prozedura abiarazten duen erabakian prozedura hori zerk abiarazi duen, zer eginbide bete ez den eta dirulaguntzaren zer parteri eragiten dion adierazi behar da.

3. Conforme al artículo 80 del Decreto foral 34/2010, el acuerdo por el que se inicie el procedimiento de reintegro deberá indicar la causa que determina su inicio, las obligaciones incumplidas y el importe de la subvención afectado.

Onuradunari erabakia jakinaraziko zaio, eta hamabost (15) eguneko epea emango zaio egokitzat jotzen dituen agiriak alegatzeko edo aurkezteko.

El acuerdo será notificado a la persona beneficiaria, concediéndole un plazo de quince (15) días para que alegue o presente los documentos que estime pertinentes.

Dirulaguntza bat osorik edo haren zati bat itzultzen bada (dela aldaketa bategatik, dela gutxitzeagatik edo dela baldintzak ez betetzearen adierazpen batengatik), dirulaguntza ordaindu zenetik aurrera aplikatu behar diren berandutze-interesak ordaindu beharko dira, 5/2005 Foru Arauaren 34. artikuluan xedatutakoaren arabera.

Todo reintegro, ya sea parcial o total de la subvención, como consecuencia de la modificación, minoración o de la declaración de incumplimiento de la subvención concedida, dará lugar a la obligación de abonar los intereses de demora que resulten de aplicación desde el pago de la subvención, conforme a lo dispuesto en el artículo 34 de la Norma Foral 5/2005.

13. oinarria. *Dirulaguntza erakunde onuradunaren ekimenez itzultzea*

Base 13. *Devolución de la subvención a iniciativa de la entidad beneficiaria*

Erakunde onuradunak bere borondatez itzuli ahal izango du dirulaguntzaren zenbatekoa, Administrazioak aldez aurretik eskatu gabe.

La entidad beneficiaria podrá devolver, de forma voluntaria, sin el previo requerimiento de la Administración, el importe de la subvención.

Horretarako, Enplegua, Gizarte Kohesioa eta Berdintasuna Sustatzeko Sailaren bulego birtualaren bidez jakinarazi beharko du, espediente-zenbakia eta itzultzeko zenbatekoa adierazita.

Para ello, deberá comunicarlo a través de la Oficina Virtual del Departamento de Empleo, Cohesión Social e Igualdad, indicando el número de expediente y el importe a reintegrar.

Borondatezko itzulketa-eskaera jaso ondoren, berandutze-interesak 5/2005 Foru Arauaren 34. artikuluaren arabera kalkulatuko dira, ordainketa-gutuna egingo da eta borondatezko ordainketa-aldia irekiko da.

Recibida la solicitud de devolución voluntaria se calcularán los intereses de demora conforme al artículo 34 de la Norma Foral 5/2005, se emitirá la carta de pago y se abrirá el periodo de pago voluntario.

## III. titulua- Prozedura

## Título III.- Procedimiento

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: CBPH-2OAL-0915-VAZY
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

14. oinarria. *Laguntza-eskabideak aurkezteko lekua, modua eta epea, eta ondorengo izapideak eta ESEPEan inskribatzea*

1. Laguntza-programa hau eskuratu nahi duten pertsonek konpromisoa hartzen dute Enplegua, Gizarte Kohesioa eta Berdintasuna Sustatzeko Sailaren bulego birtualaren bidez dirulaguntzaren eskaera formalizatzeko, bai eta dokumentazioa bidaltzeko, justifikazioak egiteko, errekurtsoak jartzeko, alegazioak egiteko, irekitako espedienteei buruzko aldaketak aurkezteko eta beste edozein izapide egiteko ere; izan ere, 39/2015 Legearen 14. artikuluarekin bat etorriz, gaitasun ekonomikoa, teknikoa eta dedikazio profesionala direla-eta beharrezkoak diren baliabide teknologikoetarako sarbidea eta eskuragarritasuna bermatuta daukatela ulertzen da.

2. Eskabideak Internet bidez aurkeztu beharko dira, Enplegua, Gizarte Kohesioa eta Berdintasuna Sustatzeko Sailaren bulego birtualaren bidez, 39/2015 Legearen 16. artikulua betetzeko, Bizkaiko Foru Aldundiaren egoitza elektronikoan sartuta eta (www.ebizkaia.eus), Enplegua, Gizarte Kohesioa eta Berdintasuna Sustatzeko bulego birtuala hautatuta.

Eskabidearekin batera, behar bezala beteta, 15. oinarrian zehaztutako dokumentazioa aurkeztu beharko da.

3. Bulego birtuala erabiltzeko, sistemak sinadura elektronikoa eskatuko dizu (Izenpe, NAN elektronikoa, FEA, B@KQ...).
B@KQ txartela Bizkaiko Foru Aldundiko herritarrei laguntzeko bulegoetan lortu ahal izango da (https://www.bizkaia.eus/eu/beste-sail-batzuk-bulegoak).

4. Eskabide-orrira jo aurretik, sistemak Erakundeen eta Pertsona Fisikoen Erregistroan (ESEPE) inskripzioa egiteko beharrezkoak diren datuak eskatuko dizkizu.

Inskripzio hori dirulaguntza eskatu aurretik egin behar da eta nahitaezkoa da Bizkaiko Foru Aldundiaren martxoaren 7ko 25/2024 Foru Dekretuaren arabera, zeinaren bidez eguneratzen baitira Bizkaiko ehun ekonomiko eta sozialaren garapenarekin loturiko ezagutza gestionatzeko

Base 14. *Lugar, forma y plazo en que deben presentarse las solicitudes de ayuda y subsiguientes trámites e inscripción en el REPPE*

1. Las entidades que quieran acceder al presente programa de ayudas se comprometen a formalizar la petición de subvención, así como a enviar documentación, realizar las justificaciones, interponer los recursos, realizar las alegaciones, presentar las variaciones con respecto a expedientes ya abiertos y cualesquiera trámites a través de la oficina virtual del Departamento de Empleo Cohesión Social e Igualdad, por entenderse que tienen garantizado el acceso y disponibilidad de los medios tecnológicos precisos por razón de su capacidad económica, técnica y dedicación profesional, de conformidad con el artículo 14 de la Ley 39/2015.

2. Las solicitudes deberán presentarse por internet, a través de la Oficina Virtual del Departamento de Empleo, Cohesión Social e Igualdad, en aplicación del artículo 16 de la Ley 39/2015, accediendo a la Sede electrónica de la Diputación Foral de Bizkaia www.ebizkaia.eus, seleccionando Oficina virtual de Empleo, Cohesión Social e Igualdad.

Junto con la solicitud, debidamente cumplimentada en todos sus términos, se aportará la documentación detallada en la Base 15.

3. Para utilizar la oficina virtual el sistema le requerirá firma electrónica (Izenpe, DNI electrónico, FEA, B@KQ...).
La tarjeta B@KQ podrá obtenerse en las oficinas de atención ciudadana de la Diputación Foral de Bizkaia (https://www.bizkaia.eus/es/oficinas-otros-departamentos).

4. Antes de acceder al formulario de solicitud, el sistema le solicitará los datos necesarios para la inscripción de la entidad en el Registro de Entidades y Personas Físicas (REPPE).

Dicha inscripción es previa y obligatoria a la solicitud de la subvención conforme al Decreto Foral 25/2024, de 7 de marzo, de la Diputación Foral de Bizkaia, por el que se actualiza la regulación del Registro de entidades y personas físicas para la gestión del conocimiento asociado al desarrollo del tejido económico y social de

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: CBPH-2OAL-0915-VAZY
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

Erakundeen eta Pertsona Fisikoen Erregistroaren arauketa eta haren administrazio-prozedurak (aurrerantzean ESEPE).
Beharrezkoa izango da ESEPEan inskribatuta egotea eta datuak eguneratuta edukitzea aurkeztutako eskabidearen ebazpen-proposamena ebazteko eskumena duen organoari helarazten zaionean; bestela, aurkeztutako eskabidea ezetsi egingo da.

ESEPEan inskribatuta egoteko baldintza espedientea instruitzen den bitartean eta organo eskudunari helarazi beharreko behin betiko proposamena egiten den unean egiaztatuko da.

Erregistro horren barruko datuetan edo eskabidean egiaztatutakoetan aldaketaren bat eginez gero Enplegua, Gizarte Kohesioa eta Berdintasuna Sustatzeko Sailari jakinarazi behar zaio, bere bulego birtualaren bidez.
5. Eskabideak aurkezteko epea:

Eskabideak aurkezteko epea uztailaren 22an hasiko da, 9:00etan, eta 2025eko abuztuaren 1ean amaituko da, 13:30ean, egun biak barne.

15. oinarria. *Eskabidea egiteko beharrezko dokumentazioa eta elkarreragingarritasuna*

1. Dirulaguntza eskatzen duen erakundearen ordezkariak eskabide-orriaren atal guztiak bete behar ditu, oinarri honen hurrengo ataletan ezarritako agiriekin batera. Eskabidea eta agiriak Enplegua, Gizarte Kohesioa eta Berdintasuna Sustatzeko Saileko Bulego Birtualaren bidez aurkeztuko dira.

2. Banku-helbideratzearen fitxa kasu hauetan baino ez da aurkeztu behar: dirulaguntza sartzeko aukeratutako kontua berria denean Bizkaiko Foru Aldundiarekiko bere harremanetan.

Kasu horretan, eskaeran adierazitako kontu-zenbakiak eskabide-orrian jarritako bera izan behar du. Banku-helbideratzearen fitxaren atal guztiak bete behar dira, eta kasuan kasuko sinadura eta zigilu guztiak eduki behar ditu.
3. Dekretu honetako dirulaguntzetara aurkeztu nahi dutenek, garatuko dituzten jarduketen memoria aurkeztu beharko dute honakoak zehaztuz:

Bizkaia y sus procedimientos administrativos (en adelante REPPE).

Será necesario estar inscrito en el REPPE y con los datos actualizados en el momento que se eleve la propuesta de resolución de la solicitud presentada al órgano competente para resolver. En caso contrario, será causa de desestimación de la solicitud presentada.

La condición de estar inscrito en el REPPE se comprobará durante la instrucción del expediente y en el momento de formular la propuesta definitiva a elevar al órgano competente.

Cualquier modificación de los datos incluidos en dicho registro o acreditados mediante la solicitud deberá ser comunicada al Departamento de Empleo, Cohesión Social e Igualdad mediante su Oficina Virtual.

5. Plazo de presentación de solicitudes:

El plazo de presentación de solicitudes comenzará el día 22 de julio a las 9:00 horas y finalizará el 1 de agosto 2025 a las 13:30 horas, ambos días incluidos.

Base 15. *Documentación necesaria para la solicitud e interoperabilidad*

1. La solicitud deberá estar debidamente cumplimentada en todos sus extremos por la persona representante de la entidad solicitante de la subvención, junto con la documentación establecida en los apartados siguientes de esta base. Tanto la solicitud como la documentación se presentarán vía telemática, a través de la Oficina Virtual de Empleo Cohesión Social e Igualdad.

2. Únicamente habrá de presentarse ficha de domiciliación bancaria cuando la cuenta en la que se desee realizar el ingreso de la subvención sea nueva en sus relaciones con la Diputación Foral de Bizkaia.

En este caso el número de cuenta deberá coincidir con la señalada en la solicitud. La ficha de domiciliación bancaria deberá estar cumplimentada en todos sus extremos, con las firmas y sellos requeridos al efecto.

3. Quienes deseen presentarse a las ayudas contenidas en este decreto, deberán aportar una memoria de las actuaciones a desarrollar en las que se detalle:

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: CBPH-2OAL-0915-VAZY
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

a) Laguntza, orientazio, aktibazio eta prestakuntza jarduketen deskribapena, bakoitzaren faseak azalduz

b) Proposatutako jarduketen edukia eta metodologia zehazteko egin den diseinu prozesua, bai eta parte-hartzaileei eman beharreko autoprestakuntzako materiala ere.
c) Lortu nahi diren helburuak.
d) Jarduera bakoitza hasteko eta amaitzeko aurreikusitako datak, parte-hartzaileari laguntzeko, orientatzeko, aktibatzeko eta tutoretzarako aurreikusitako ordu-kopurua.
e) Gastuak, honako kontzeptuetan banatuta, eta 8. oinarriko ekonomia moduluekin bat etorriz:

1. Laguntze- eta orientazio-kostua.
2. Aktibazio-kostua
3. Prestakuntzaren kostua.
4. Diruz lagundutako jardueren azterketa eta ebaluazioa edozein unetan egin daitezke, jarduera hasten denetik, eta jarduera amaitu eta gero ere egin daiteke. Erakunde onuradunak lankidetzan jardun beharko du Enplegua, Gizarte Kohesioa eta Berdintasuna Sustatzeko Sailarekin edota sailak izendatzen duen edozein erakunderekin, eskatzen zaizkion datuak eta agiriak aurkeztu beharko ditu, eta baimena eman behar du datu horiek zuzenean jardueran parte hartu dutenei eskatzeko.

5. Oinarri honetako 2. paragrafoan jasotakoa eta zerga-zorra eta Gizarte Segurantzarekikoa egunean izatearen ziurtagiriak automatikoki egiaztatuko ditu Enplegua, Gizarte Kohesioa eta Berdintasuna Sustatzeko Saileko Enplegu Zerbitzuak, datuen elkarreragingarritasun-sistemen bidez (NODO) eta dirulaguntzak kudeatzeko helburuarekin, salbu eta pertsona edo erakunde eskatzaileak berariaz aurka egiten badu; kasu horretan, dagokion dokumentazioa aurkeztu beharko du.

16. oinarria. *Eskabidea zuzentzea edo hobetzea*

Dirulaguntzetarako eskabideak ez badaude osorik beteta edo erantsita ez badauzkate beharrezko diren agiri guztiak, edo laguntzaren xedea behar adina zehazten ez bada, erakunde eskatzaileari errekerimendua bidaliko zaio, jakinarazpena jaso eta hamar eguneko epearen barruan akatsa zuzen dezan edo 15. oinarria aipatu diren nahitaezko agiriak aurkez ditzan; halaber, adieraziko zaio ezen, hala egin ezean, eskaeran atzera egin duela joko dela,

a) Descripción de las actuaciones de acompañamiento, orientación, activación y formación con explicación de cada una de las fases del mismo.
b) Proceso de diseño que se ha llevado a cabo para determinar el contenido y la metodología de las actuaciones propuestas, así como el material de autoformación a aportar a las personas participantes.
c) Los objetivos perseguidos.
d) Fechas previstas de inicio y de finalización de cada una de las actuaciones con el número de horas previstas de acompañamiento, orientación, activación y tutoría por persona participante.
e) Detalle de los gastos desagregados por los siguientes conceptos, conforme a los módulos económicos de la base 8:
1º Coste de acompañamiento y orientación.
2º Coste de activación
3º Coste de formación.
4. El análisis y evaluación de las actuaciones subvencionadas se podrá realizar en cualquier momento desde el inicio de la acción y con posterioridad a su finalización, debiendo colaborar la entidad beneficiaria con el Departamento de Empleo, Cohesión Social e Igualdad o con la entidad que este último designe, aportándole los datos y documentación que se le solicite, así como permitiendo recabar dichos datos directamente de las personas participantes en la acción.

5. Lo recogido en el apartado 2 de esta base, así como los certificados de estar al corriente de deuda tributaria y con Seguridad Social se verificarán automáticamente por el Servicio de Empleo del Departamento de Empleo, Cohesión Social e Igualdad, a través de los sistemas de interoperabilidad de datos (NODO) y con el fin de gestionar las subvenciones, salvo que la persona o entidad solicitante se oponga expresamente, en cuyo caso deberá de presentar la documentación correspondiente.

Base 16. *Subsanación o mejora de la solicitud*

Recibidas las solicitudes de subvención, si estas no vinieran cumplimentadas en todos sus términos o no fueran acompañadas de la documentación necesaria, o no se especificara suficientemente el objeto de la ayuda, se requerirá a la entidad solicitante para que, en el plazo de diez días desde la notificación correspondiente, subsane la falta o acompañe los documentos necesarios señalados en la Base 15, con indicación de que si así no lo hiciera, se le podrá declarar desistido de su petición,

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: CBPH-2OAL-0915-VAZY
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

Administrazio Publikoen Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 39/2015 Legearen 68. artikuluan ezarritakoaren arabera Horretarako, ebazpen bat eman beharko da aurretik, lege horren 21. artikuluan ezarritakoaren arabera.

según lo previsto en el artículo 68 de la Ley 39/2015, de 1 de octubre, previa resolución que deberá ser dictada en los términos previstos en el artículo 21 de la citada ley.

17. oinarria. *Dirulaguntza emateko prozedura.*

Base 17. *Procedimiento de concesión.*

1. Dekretu honetan araututako dirulaguntzak lehia-konkurrentziaren araubidearen bidez emango dira, hainbanaketa eginda, 5/2005 Foru Arauaren 20. artikuluan xedatutakoarekin bat.
2. Horretarako, honako prozedura hau hartuko da norgehiagoka araubidetzat: aurkezten diren eskabideak erkatu egiten dira, eta, 18. oinarrian ezarritako balorazio-irizpideen arabera, euren arteko lehentasun-hurrenkera ezartzen da. Gero, dagoen kreditua kontuan hartuta deialdian ezarri den mugarekin betiere, hurrenkera horri jarraituz adjudikatuko dira laguntzak, irizpide horiek aplikatuta punturik gehien lortu dutenetik hasi eta beherantz eginez.

1. Las subvenciones reguladas en este decreto se concederán en régimen de concurrencia competitiva con prorrateo, previsto en el artículo 20 de la Norma foral 5/2005.
2. A estos efectos tendrá la consideración de concurrencia competitiva el procedimiento por el cual la concesión de las subvenciones se realiza mediante la comparación de las solicitudes presentadas, a fin de establecer una prelación entre las mismas de acuerdo con los criterios de valoración que se señalan en la Base 18, y adjudicar, con el límite fijado en esta convocatoria dentro del crédito disponible, aquellas que hayan obtenido mayor valoración en aplicación de dichos criterios.

Hainbanaketa lortzeko, ezarritako balorazio-irizpideak aplikatuz lortutako guztizko puntuazioa hartuko da kontuan; C izango da puntuazio hori.
Hainbanaketa honela kalkulatuko da: C bider kreditu baliagarriaren gehieneko zenbatekoa zati erakunde onuradun bakoitzari dagozkion C zenbateko guztien batura; muga beti izango da eskatutako zenbatekoa.

Para la obtención del prorrateo se tomará la puntuación total obtenida en aplicación de los criterios de valoración establecidos, denominada C.
El prorrateo se aplicará en función del resultado de multiplicar C por la cuantía máxima de crédito disponible dividido entre la suma del total de las cuantías C correspondientes a cada una de las entidades beneficiarias, con el límite de la cuantía solicitada.

18. oinarria. *Balorazio-irizpideak*

Base 18. *Criterios de valoración*

1. Aurkeztutako eskabideak baloratzeko eta laguntzaren zenbatekoa zehazteko, laguntze-, orientazio-, aktibazio- eta prestakuntza-plan bakoitzean baloratu beharreko irizpide hauek hartuko dira kontuan:

1. Para la valoración de las solicitudes presentadas y la determinación de la cuantía de la ayuda se tendrán en cuenta los siguientes criterios a valorar en cada plan de apoyo, orientación, activación y formación:

a) Proposamenaren kalitatea. Memoriaren definizio, -kalitate-, eduki- eta aurkezpen-maila. Gehienez, 5 puntu.
Irizpide hori baloratzeko, erakunde eskatzaileak laguntze-, orientazio-, aktibazio- eta prestakuntza-planaren memoria aurkeztuko du, dekretuaren 15.

a) Grado de definición, contenido y presentación de la memoria. Puntuación máxima 5 puntos.

Para la valoración de este criterio la entidad solicitante presentará memoria del plan de acompañamiento, orientación, activación y formación según lo establecido

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: CBPH-2OAL-0915-VAZY
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

oinarriaren 3. zenbakian ezarritakoaren arabera, gehienez puntu bat emango da atal bakoitzeko.

en la Base 15, apartado 3 del decreto, valorándose un máximo de un punto por cada apartado.

Atal horretan bosteko puntu bat emango da memoriak jaso behar duen alderdi bakoitzaren aurkezpenagatik eta kalitate edukiaren definizioagatik (15. oinarria, 3. atala). Puntu bat emango da definizio, eduki eta aurkezpen maila handiena duen puntu bakoitzeko.

En dicho apartado se puntúa un punto de cinco por la definición contenido y presentación de cada uno de los extremos que ha de contener la memoria (base 15 , apartado 3). Se otorga un punto por cada extremo que tenga mayor grado de definición, contenido y presentación.

b) Erakunde eskatzaileak esperientzia egiaztatua izatea egiazta daitezkeen prestakuntza-ekintzak abian jartzen, «Pertsonentzako arreta soziosanitarioa etxean» eta «Mendekotasuna duten pertsonentzako arreta soziosanitarioa gizarte-erakundeetan» profesionaltasun-ziurtagiriei buruzkoak. 2023an eta 2024an.

10 puntu, gehienez
Egindako prestakuntza-ekintza kopurua:
5 prestakuntza-ekintzaraino: 5 puntu
5 prestakuntza-ekintza baino gehiago: 10 puntu.

b) Experiencia acreditada por la entidad solicitante en la puesta en marcha de formaciones acreditables del certificado de profesionalidad “Atención sociosanitaria a personas en domicilio” y “Atención sociosanitaria a personas dependientes en instituciones sociales”. En 2023 y 2024.

Hasta 10 puntos
Número de formaciones realizadas:
Hasta 5 formaciones: 5 puntos
Más de 5 formaciones: 10 puntos.

c) Erakunde eskatzaileak esperientzia egiaztatua izatea SSCG0017OV «Mendekotasuna eta/edo desgaitasuna duten pertsonentzako arreta soziosanitarioa etxean eta erakundeetan» prestakuntzaren egiaztapena lortzera bideratutako prestakuntza-ekintzak abian jartzen. 10 puntu, gehienez
Egindako prestakuntza-ekintza kopurua:
5 prestakuntza-ekintzaraino: 5 puntu
5 prestakuntza-ekintza baino gehiago: 10 puntu.

c) Experiencia acreditada por la entidad solicitante en la puesta en marcha de formaciones dirigidas a la obtención de la acreditación de la formación SSCG0017OV “Atención sociosanitaria a personas en situación de dependencia y/o con discapacidad en domicilios y en instituciones”. Hasta 10 puntos

Número de formaciones realizadas:
Hasta 5 formaciones: 5 puntos
Más de 5 formaciones: 10 puntos.

d) Erakunde eskatzaileak esperientzia egiaztatua izatea azken hiru urteetan autoprestakuntzako modalitatea eta aurrez aurreko talde-gaikuntzakoa konbinatzen dituzten prestakuntza-ekintzak martxan jartzen. 10 puntu gehienez.
Esperientzia egiaztatzeko, erakundeak azken hiru urteetan autoprestakuntzako eta talde-trebakuntza presentzialeko modalitateak konbinatuz egindako prestakuntza-kopurua hartuko da kontuan. Deskribatutako prestakuntza gehien aurkezten dituen erakundeak lortuko du puntuaziorik altuena, eta gainerakoak proportzionalki.

d) Experiencia acreditada por la entidad solicitante en la puesta en marcha de formaciones que combinen la modalidad de autoformación y de capacitación grupal presencial, durante los tres últimos años. Puntuación máxima 10 puntos.
En este sentido la experiencia se acreditará con el número de formaciones que la entidad haya realizado combinando la modalidad de autoformación y de capacitación grupal presencial en los tres últimos años. Obtendrá máxima puntuación la entidad que presente el mayor número de las formaciones descritas, y el resto proporcionalmente.

e) Erakundeak ematen dituen autoprestakuntzarako materialen kalitate pedagogikoa, baldin eta

e) Calidad pedagógica de los materiales de autoformación que aporte la entidad, en cuanto

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: CBPH-2OAL-0915-VAZY
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

ikaskuntza autonomoa sustatzen eta estimulatzen badute. 5 puntu gehienez.

Autoprestakuntzako materialen kalitate pedagogikoa baloratzeko, gehienez 5 puntu emango zaizkie irudi-metodoarekin autoprestakuntzako materialak aurkezten dituzten erakundeei, informazioa ondo antolatzen duten diagramak aurkezten dituztenei, hizkuntza erraza, argia eta erraza erabiltzen dutenei, parte-hartzaileak autonomia izan dezan autoprestakuntzako materiala erabiltzeko. Puntuazio gorena lortuko dute ezaugarri horiekin aurkezten diren materialek eta gainerakoek proportzionalki.

f) Genero-ikuspegia txertatzea. 4 puntuko balorazioa emango zaio proiektuan dauden jarduketa guztietan genero-ikuspegia txertatzeari.

g) Laguntze-, orientazio-, aktibazioa eta prestakuntza-jardueran parte hartzen duten pertsonen kopurua.

20 pertsonak parte hartzen badute: 10 puntu.

16-19 pertsonak parte hartzen badute: 7 puntu.
10 pertsonak baino gehiagok parte hartzen badute, gehienez 15 pertsonak: 5 puntu.

2. Aurreko balorazio-irizpideak kontuan hartu ahal izateko, dirulaguntzaren eskabidean ezarritako moduan bete beharko da eskatutako informazioa, Enplegu, Gizarte Kohesioa eta Berdintasuna Sustatzeko Sailaren bulego birtualaren bidez, 15. oinarrian zehaztutako dokumentazio erantsiarekin batera. Eskabidean edo 15. oinarrian aurreikusitako dokumentazioan jasotzen ez denak 0 puntu emango ditu.

3. Dirulaguntzarako hainbat eskariren arteko puntu guztien artean berdinketa gertatzen bada, hurrengo irizpideetan eta hemen ezarritako ordenan eskuratutako puntuazio handienaren arabera ezarriko da sailkapena, berdinketa hautsi arte: 1. apartatuko g), b), c), d, eta e) hizkiak.
Irizpide guztietan puntuazio berdina lortzen bada, eskabideak aurkeztu ziren hurrenkera erabiliko da berdinketa hausteko.

19. oinarria. *Ebazpena.*

promuevan y estimulen el aprendizaje autónomo. Puntuación máxima 5 puntos.

Para valorar la calidad pedagógica de los materiales de autoformación se puntuará el máximo de 5 puntos aquellas entidades que presenten materiales de autoformación con el método de imágenes, diagramas con una buena organización de la información, utilización de lenguaje fácil, claridad y facilidad para que el participante tenga autonomía en la utilización del material de autoformación. Obtendrá la máxima puntuación los materiales que se presenten con esas características y el resto proporcionalmente.

f) La integración de la perspectiva de género. Se valorará con 4 puntos, la integración de la perspectiva de género en la totalidad de las actuaciones contempladas en el proyecto.

g) Número de personas que participen en las actuaciones de acompañamiento, orientación, activación y formación.

Si participan 20 personas: 10 puntos.

Si participan entre 16 y 19 personas: 7 puntos.

Si participan más de 10 y hasta 15 personas: 5 puntos.

2. Para poder ser tenidos en cuenta los anteriores criterios de valoración, deberá cumplimentarse la información requerida en la forma establecida en la solicitud de la subvención a través de la oficina virtual Empleo, Cohesión Social e Igualdad, junto con la documentación anexa detallada en la Base 15. Lo no recogido en la solicitud o no aportado en la documentación prevista en la Base 15 puntuará 0 puntos.

3. En caso de empate en el total de puntos entre varias solicitudes de subvención la clasificación se establecerá en función de la mayor puntuación obtenida en los siguientes criterios y en el orden que aquí se establece hasta conseguir el desempate: apartado 1 letras g), b) c) d), y e).
Si existiese una coincidencia en todos los criterios, el desempate se realizará en base al orden de presentación de solicitudes.

Base 19. *Resolución.*

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: CBPH-2OAL-0915-VAZY
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

1. Organo instruktoreak ebaluatuko ditu eskabideak. Organo horrek, zerga- eta tributu-betebeharrak betetzen direla egiaztatu ondoren, Enplegua, Gizarte Kohesioa eta Berdintasuna Sustatzeko Saileko foru diputatuari helaraziko dizkio deialdiak ebazteko proposamenak.

1. Las solicitudes serán evaluadas por el órgano instructor el cual previa comprobación del cumplimiento de las obligaciones fiscales y tributarias elevará a la diputada foral del Departamento de empleo Cohesión Social e Igualdad las propuestas de resolución de las convocatorias.

2. Eskabideak ebazpen bakar baten bidez ebatziko dira. Ebazpen horretan, 5/2005 Foru Arauaren 23. artikuluaren arabera, dirulaguntza zein erakunderi eman zaien adieraziko da, eta, hala badagokio, bakoitzari aurreikusitako balorazio-irizpideen arabera emandako puntuazioa adieraziko da. Halaber, hala badagokio, berariaz adieraziko da gainerako eskabideak zergatik ezetsi diren eta ez zaien ezer eman.

2. Las solicitudes se resolverán mediante una única resolución, en la que se expresará conforme al artículo 23 de la Norma Foral 5/2005, la relación de entidades a las que se concede la subvención, con indicación en su caso de la puntuación otorgada a cada una de ellas en función de los criterios de valoración previstos y se hará constar, en su caso, de manera expresa los motivos de la desestimación del resto de las solicitudes, así como la no concesión.

3. Dirulaguntza emateko foru-agindua jakinarazi ondoren, onuradunak urriaren 1eko 39/2015 Legearen 40. eta 43. artikuluen arabera, hamar (10) eguneko epea izango du dirulaguntza onartzeko. Epe hori igaro eta adierazpen espresurik egiten ez bada, isilbidez onartutzat joko da.

3. Notificada la orden foral de otorgamiento de la subvención, de acuerdo con los artículos 40 y 43 de la Ley 39/2015, de 1 de octubre, se dispondrá de un plazo de diez (10) días para su aceptación, transcurrido el cual sin haberse producido manifestación expresa se entenderá tácitamente aceptada.

4. Prozeduraren ebazpena ebazteko eta jakinarazteko gehieneko epea 6 hilabetekoa izango da, eskabideak aurkezteko epea amaitzen denetik zenbatzen hasita. Epe hori igaro eta ebazpenik jakinarazi ez bada, eskabidea administrazio-isiltasunez ezetsi dela ulertuko da. Hala ere, 39/2015 Legearen 21 eta 24. artikuluetan xedatutakoarekin bat etorrita, gerora ebazpen espresua eman beharko da.

4. El plazo máximo para resolver y notificar la resolución del procedimiento será de 6 meses desde que finalice el plazo para presentar solicitudes. Transcurrido este plazo sin haberse notificado la resolución, se entenderá desestimada la solicitud por silencio administrativo, sin perjuicio de que con posterioridad sea resuelta de forma expresa, conforme a los artículos 21 y 24 de la Ley 39/2015.

20. oinarria. *Errekurtsoak.*

Base 20. *Recursos.*

1. Ebazpenak amaiera ematen dio administrazio-bideari, eta, haren aurka, aukerako berraztertze-errekurtsoa jarri ahal izango zaio Enplegua, Gizarte Kohesioa eta Berdintasuna Sustatzeko Saileko titularrari, hilabeteko (1) epean, ebazpenaren jakinarazpena jaso eta hurrengo egunetik aurrera, 39/2015 Legeak ezarritakoaren arabera.

1. La resolución agota la vía administrativa, y contra la misma se podrá interponer recurso potestativo de reposición ante la persona titular del Departamento de Empleo, Cohesión Social e Igualdad, en el plazo de un (1) mes, a contar desde el día siguiente a aquel en que se reciba la notificación de la misma, en los términos que establece la Ley 39/2015.

2. Halaber, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jarri ahal izango da Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioan, bi hilabeteko epean, jakinarazpena jaso eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita, Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen

2. Así mismo, podrá interponerse recurso contencioso administrativo ante la Jurisdicción Contencioso. Administrativa, en el plazo de dos meses contados desde el día siguiente a aquél en que reciba la notificación de la misma, en los términos contemplados

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: CBPH-2OAL-0915-VAZY
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

duen uztailaren 13ko 29/1998 Legean ezarritakoaren arabera.
3. Ezin izango dira bi errekurtsoak aldi berean jarri.

21. oinarria. *Dirulaguntzari uko egitea.*

1. 34/2010 Foru Dekretuaren 48.3 artikuluan araututako kasuaren arabera, onuradunetakoren batek dirulaguntzari uko egiten badio, laguntza eman duen organoak erabaki ahal izango du hurrengo eskatzaileei dirulaguntza ematea, puntuazio-hurrenkeraren arabera, betiere kasuan kasuko eskabideei erantzuteko kreditu nahikoa geratu bada libre.

2. Uko egiteko epea hamar (10) egun baliodunekoa izango da, deialdiaren ebazpena jakinarazten denetik aurrera.
Epe hori igarotakoan, uko egite oro dirulaguntza emateko arrazoi izan diren baldintzak bete ez direla joko da.

22. oinarria. *Dirulaguntza emateko ebazpena aldatzea.*

Erakunde onuradunak nahitaez jakinarazi behar dio Enplegua Sustatzeko Zerbitzuari erakunde esleipendunaren sozietate-izenari, forma juridikoari, bazkideei eta abarri buruzko edozein aldaketa, bai eta eskabidean adierazitako datuei buruzko edozein gorabehera ere, baldin eta gorabehera horrek funtsean eragin badiezaioke dirulaguntza jasotzeari, eta, hala badagokio, hura emateko arrazoi izan zen jarduera edo helburua gauzatzeari.
Dirulaguntza emateko orduan kontuan hartutako baldintzak aldatzeak dirulaguntza emateko ebazpena aldatzea ekar dezake, baldin eta dirulaguntzaren helburua eta xedea bete direla uste bada. Halakoetan, dekretu honetan ezarritako irizpideak eta mugak aplikatuko dira.

23. oinarria. *Emandako dirulaguntzak publiko egitea.*

38/2003 Legearen 20. artikuluan xedatutakoa betetzeko, emandako dirulaguntzak Dirulaguntzen Datu-base Nazionalean argitaratuko dira, aipatutako artikuluan xedatutakoaren arabera. Era berean, dirulaguntza ematen den urte naturala amaitu ondorengo lehen hiruhilekoa amaitu baino lehen, Enplegua, Gizarte Kohesioa eta Berdintasuna Sustatzeko Sailak *Bizkaiko Aldizkari Ofiziale*an argitaratuko ditu deialdi publiko honen

en la Ley 29/1998, de 13 de julio, reguladora de la jurisdicción contencioso. administrativa.
3. No será posible simultanear ambos recursos

Base 21. *Renuncia a la subvención.*

1. De acuerdo con el supuesto regulado en el artículo 48.3 del Decreto Foral 34/2010, en caso de renuncia a la subvención de alguna de las personas beneficiarias, el órgano concedente podrá acordar la concesión de la subvención a las personas solicitantes siguientes en orden de puntuación, siempre y cuando se haya liberado crédito suficiente para atender las solicitudes de que se trate.

2. El plazo máximo para poder presentar una renuncia será de diez (10) días hábiles desde la notificación de la resolución de la convocatoria.
Transcurrido ese plazo, cualquier renuncia tendrá la consideración de incumplimiento de las condiciones por las que se ha otorgado la subvención.

Base 22. *Modificación de la resolución de concesión.*

La entidad beneficiaria tiene la obligación de comunicar al Servicio de Empleo cualquier modificación que afecte a la razón social, a la forma jurídica, o a la variación de las personas socias, etc., de la entidad adjudicataria, así como cualquier circunstancia o eventualidad relativa a los datos declarados en la solicitud que pueda afectar sustancialmente a la percepción de la subvención, en su caso a la ejecución de la actividad o finalidad para la que se concedió.
Toda alteración de las condiciones tenidas en cuenta para la concesión de la subvención, siempre que se entiendan cumplidos la finalidad y objeto de éstas, podrá dar lugar a la modificación de la resolución de concesión, aplicándose los criterios y límites establecidos en este decreto.

Base 23. *Publicidad de las subvenciones concedidas.*

Se dará cumplimiento a lo dispuesto en el artículo 20 de la Ley 38/2003, mediante la publicación de las subvenciones concedidas en la Base de Datos Nacional de Subvenciones, según lo dispuesto en el citado artículo. Asimismo, antes del fin del primer trimestre posterior al vencimiento del año natural de concesión de la subvención, el Departamento de Empleo, Cohesión Social e Igualdad publicará en el «Boletín Oficial de Bizkaia» las subvenciones concedidas a los

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: CBPH-2OAL-0915-VAZY
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

ondorioetarako emandako dirulaguntzak, honako hauek adierazita: deialdia, aurrekontuko zer programa eta kredituri egozten zaizkion, onuradunaren izena edo sozietate-izena (identifikazio fiskaleko zenbakia, emandako zenbatekoa, dirulaguntzaren xedea edo helburuak), eta, hala badagokio, diruz lagundutako programa edo proiektuak. Urte anitzeko dirulaguntzen kasuan, emandako guztizko zenbatekoa eta urtekoen banaketa.

Hori guztia alde batera utzi gabe horretarako eskumena duten organoek Bizkaiko Foru Aldundiaren Bizkaia Gardena gardentasun atarian egiten dituzten argitalpenak, Bizkaiko gardentasunari buruzko otsailaren 17ko 1/2016 Foru Araua aplikatuz (aurrerantzean 1/2016 Foru Araua).

24. oinarria. *Onuradunak eman zaion dirulaguntzaren zabalkundea egitea.*

1. 5/2005 Foru Arauaren 17.3 artikuluan aurreikusitakoa betez, dirulaguntza honen onuradun diren erakundeek jarduera horien finantzaketaren izaera publikoaren publizitate egokia egin beharko dute. Beraz, diruz lagundutako ekintza iragartzen den euskarri informatiko guztietan eta bestelako euskarri guztietan adierazi beharko da Bizkaiko Foru Aldundiko Enplegua, Gizarte Kohesioa eta Berdintasuna Sustatzeko Sailak finantzatu duela.

Nolanahi ere, erakunde onuradunek aurreko paragrafoan aurreikusitako moduan egin behar dute zabalkundea, Bizkaiko enplegu-atariaren bidez (portaldeempleodebizkaia.eus.).

2. Programa honetako erakunde esleipendunak behartuta daude Enplegua Sustatzeko Zuzendaritza Nagusiari programaren edukia ikus-onesteko eskatzera programa horren komunikazio-, hedapen-, informazio- eta publizitate-ekintzak edozein komunikabidetan gauzatzen dituztenean.

Zehazki, dekretu honetan diruz lagundutako jardueretarako, erakunde esleipendunak Bizkaiko Foru Aldundiaren logotipoa eta berea sartu behar ditu, bai diploman, bai diruz lagundutako ekintzara bertaratzeagatik ematen den ziurtagirian.

Era berean, diruz lagundutako jarduketen publizitatean Bizkaiko Foru Aldundiaren finantzaketa adierazten duen testua sartu beharko da. Legenda hori, hala badagokio, material

efectos de esta convocatoria pública con expresión de la convocatoria, el programa y crédito presupuestario al que se imputen, nombre o razón social de la persona beneficiaria con su número de identificación fiscal, cantidad concedida, finalidad o finalidades de la subvención, con expresión, en su caso, de los distintos programas o proyectos subvencionados. En caso de subvenciones plurianuales, importe total concedido y distribución de anualidades.

Todo ello sin perjuicio de las publicaciones que los órganos competentes para ello realicen en el portal de transparencia de la Diputación Foral de Bizkaia, Bizkaia Gardena, en aplicación de la Norma Foral 1/2016, de 17 de febrero, de transparencia de Bizkaia (en adelante Norma Foral 1/2016).

Base 24. *Difusión de la subvención concedida por la persona beneficiaria.*

1. En cumplimiento de lo previsto en el artículo 17.3 de la Norma Foral 5/2005, las entidades beneficiarias de esta subvención deberán dar la adecuada publicidad del carácter público de la financiación de estas actuaciones, por lo que en todos los soportes tanto informáticos como de cualquier otro tipo en los que se publicite la acción subvencionada se deberá indicar que la misma ha sido financiada por el Departamento de Empleo, Cohesión Social e Igualdad de la Diputación Foral de Bizkaia.

En todo caso, las entidades beneficiarias han de realizar la difusión de la forma prevista en el párrafo anterior a través del Portal de empleo de Bizkaia, portaldeempleodebizkaia.eus.

2. Las entidades adjudicatarias de este programa vienen obligadas al realizar las acciones de comunicación, difusión, información y publicidad del mismo en cualquier medio de comunicación a solicitar el visado de su contenido por la Dirección General de Empleo.

En concreto, y para las actuaciones subvencionadas en este decreto, se requiere que la entidad adjudicataria incluya el logotipo de la Diputación Foral de Bizkaia, y el suyo propio, tanto en el diploma como el certificado que se expida con ocasión de la asistencia a la acción subvencionada.

Así mismo, en la publicidad de la realización de las actuaciones subvencionadas habrá de incluirse leyenda que indique la financiación por la Diputación Foral de Bizkaia. Dicha leyenda habrá de aparecer, en su caso en

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: CBPH-2OAL-0915-VAZY
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

inprimatuetan, bitarteko elektronikoetan edo ikus-entzunezkoetan agertu beharko da, edo komunikabideetan egindako aipamenetan.

3. Bizkaiko Gardentasunari buruzko otsailaren 17ko 1/2016 Foru Arauan araututakoaren arabera, erakunde onuradunak, hala badagokio, II. tituluan jasotako publikotasun aktiboko eskakizunak bete beharko ditu, betiere 2. artikuluan aipatutako kasuren batean badago.
Erakunde pribatuak, aurrekontu-ekitaldian zehar Bizkaiko Foru Aldundiaren 100.000 euro edo gehiagoko laguntzak edo dirulaguntzak jasotzen badituzte edo haien urteko diru-sarreren % 40 Aldundiaren laguntzetatik edo dirulaguntzetatik badator, betiere gutxienez 5.000 euro badira.

4. Aurreko paragrafoetan aipatu diren zabalkunde-neurriak betetzen ez badira, onuradunari errekerimendua egingo zaio, ezarritako zabalkunde-neurriak har ditzan 15 eguneko epea amaitu baino lehen, eta ohartaraziko zaio ez-betetze horrek 12. oinarrian xedatutako itzulketarako prozedura hastea ekarriko duela.

25. oinarria. *Jakinarazpen elektronikoa*.

1. Erakunde interesdunei bitarteko elektronikoen bidez egingo zaizkie jakinarazpenak, 39/2015 Legean aurreikusitakoaren arabera.
Arlo bakoitzeko deialdien ebazpenen jakinarazpenak izan ezik, horiek *Bizkaiko Aldizkari Ofizial*ean argitaratuz egingo baitira.
2. Bitarteko elektronikoen bidezko jakinarazpenak Bizkaiko Foru Aldundiaren Egoitza Elektronikoan agertuz egingo dira (www.ebizkaia.eus), araudi bi hauetan ezarritakoaren arabera: Bizkaiko Foru Aldundiaren 63/2015 Foru Dekretua, maiatzaren 5ekoa, Administrazio Elektronikoari buruzkoa, eta Herri Administraziorako eta Erakunde Harremanetarako foru-diputatuaren 4841/2016 Foru Agindua, ekainaren 6koa, jakinarazpenak eta komunikazioak Bizkaiko Foru Aldundiaren egoitza elektronikoan agertzeko sistemaren bidez egiteari buruzkoa.
3. Egindako jakinarazpen elektronikoak eskuragarri jartzeko abisuak erakunde eskatzaileak egoitza elektronikoan alta emanda duen helbide elektronikora bidaliko dira (https://www.ebizkaia.eus

materiales impresos, medios electrónicos o audiovisuales, o bien en menciones realizadas en medios de comunicación.

3. De conformidad con lo regulado en la Norma Foral 1/2016, de 17 de febrero, de Transparencia de Bizkaia, la entidad beneficiaria estará obligada, en su caso, a cumplir las exigencias de publicidad activa contenidas en su título II, siempre y cuando se encuentre en alguno de los supuestos mencionados en el artículo 2.
Entidades privadas que durante un ejercicio presupuestario perciban de la Diputación Foral de Bizkaia ayudas o subvenciones que alcancen al menos una cuantía de 100.000 euros o cuando el 40 por ciento del total de sus ingresos anuales tengan el carácter de ayuda o subvención pública foral, siempre que alcancen como mínimo 5.000 euros.
4. Si se incumplieran las medidas de difusión previstas en los párrafos precedentes, se requerirá a la persona beneficiaria para que adopte las medidas de difusión establecidas en un plazo no superior a 15 días, con advertencia de que dicho incumplimiento producirá el inicio del procedimiento de reintegro previsto en el base 12.

Base 25. *Notificación electrónica*.

1. Las notificaciones realizadas a las entidades interesadas se realizarán por medios electrónicos, de acuerdo con lo previsto en la Ley 39/2015.
Salvo las notificaciones de las resoluciones de las convocatorias de cada área, que se realizarán mediante la publicación en el Boletín Oficial de Bizkaia.
2. Las notificaciones por medios electrónicos se practicarán mediante comparecencia en la Sede Electrónica de la Diputación Foral de Bizkaia (https://www.ebizkaia.eus), de conformidad con lo establecido en el Decreto Foral de la Diputación Foral de Bizkaia 62/2015, de 5 de mayo, de Administración Electrónica, así como en la Orden Foral de la diputada foral de Administración Pública y Relaciones Institucionales 4841/2016, de 6 de junio, sobre la práctica de las notificaciones y comunicaciones por medio del sistema de comparecencia en la sede electrónica de la Diputación Foral de Bizkaia.
3. Los avisos de puesta a disposición de las notificaciones electrónicas practicadas se remitirán a la dirección de correo electrónico que la entidad solicitante tenga dada de alta en la Sede Electrónica (https://www.ebizkaia.eus

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: CBPH-2OAL-0915-VAZY
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

## IV. títulua.- Gauzatzea, justifikazioa eta kontrola

26. oinarria. *Gauzatzeko epea*

Gauzatzeko epea 2025eko irailaren 1etik 2026ko ekainaren 30era artekoa izango da.

27. oinarria. *Justifikatzeko epea*

Prestakuntza-ekintza bakoitza amaitzean, 29.2 oinarriaren arabera, eta 2026ko irailaren 30a baino lehen, justifikazioko kontua aurkeztu beharko da.

28. oinarria. *Azpikontratatzeko baldintzak*

Azpikontratazioa dagoenean, 5/2005 Foru Arauaren 29. artikuluan aurreikusitakoa bete beharko da. Horregatik, diruz lagundu daitekeen gastuaren zenbatekoa 15.000 eurokoa edo handiagoa bada aholkularitzako edo laguntza teknikoko enpresek zerbitzuak ematen dituztenean, erakunde onuradunak 5/2005 Foru Arauaren 29.3 artikulua betetzeko eskatu behar izan dituen hiru aurrekontuak aurkeztu beharko ditu.

29. oinarria. *Dirulaguntzak justifikatzea.*

Dirulaguntza justifikatzeko, dokumentazio hau aurkeztu beharko da Enplegua, Gizarte Kohesioa eta Berdintasuna Sustatzeko Sailaren bulego birtualaren bidez, behean adierazten diren epeetan:

1. Jardueren hasieran, programan parte hartzen duten pertsonei buruzko informazioa eman beharko da. Horretarako, bulego birtualean justifikazioa egiteko izapidean adierazitako parte-hartzaile bakoitzaren datuak bete eta eguneratuko dira aldian-aldian.
2. Prestakuntza-ekintza bakoitza amaitzean, egindako jardueren gauzatze-txostena aurkeztu beharko du, honako eduki honekin:

a) Aplikazio informatiko bat bete beharko da, non jarduketetan parte hartu duen pertsona bakoitzaren identifikazio-datuak jasoko baitira.

b) Parte-hartzaile bakoitzarentzat, datu hauek zehaztuko dira: laguntza, orientazio, lanerako aktibazio eta prestakuntzako orduen kopurua. Ordu horien egiaztagiriak erantsi beharko dira.

## Título IV.- Ejecución, justificación y control

Base 26. *Plazo de ejecución*

El plazo de ejecución habrá de desarrollarse desde el 1 septiembre de 2025 a 30 de junio de 2026.

Base 27. *Plazo de justificación*

A la finalización de cada acción formativa conforme a la Base 29.2 y con anterioridad al 30 de septiembre de 2026 habrá de presentarse la cuenta justificativa.

Base 28. *Condiciones de subcontratación*

Cuando exista subcontratación, habrá de cumplirse lo previsto en el artículo 29 de la Norma Foral 5/2005. Por ello, cuando el importe del gasto subvencionable sea igual o superior a la cuantía de 15.000 euros en el supuesto de prestación de servicios por empresas de consultoría o asistencia técnica, la entidad beneficiaria habrá de presentar los tres presupuestos que, en aplicación del artículo 29.3 de la Norma Foral 5/2005 deba haber solicitado.

Base 29. *Justificación de las subvenciones.*

La subvención otorgada se justificará mediante la presentación a través de la Oficina Virtual de Empleo, Cohesión Social e Igualdad de la siguiente documentación y en los plazos que se relacionan a continuación:

1. Al inicio de las actuaciones se habrá de aportar información de las personas participantes en la mismas. Para ello, se rellenarán y actualizarán periódicamente los datos de cada persona participante indicados en el trámite "justificación" en la oficina virtual.

2. A la finalización de cada acción formativa deberá presentar un informe de ejecución de las actuaciones realizadas con el siguiente contenido:

a) Se habrá de rellenar el aplicativo informático en el que se cumplimentarán los datos identificativos de cada persona participante en las actuaciones.

b) Para cada persona participante se especificará: el número de horas de acompañamiento, orientación, activación laboral y formación, adjuntando la documentación acreditativa de las mismas.

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: CBPH-2OAL-0915-VAZY
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

c) Egindako prestakuntza-ekintzen memoria. Memoria horrek dokumentazio hau jasoko du:
1. Prestakuntza-jarduera bakoitzaren deskripzio-memoria.
2. Prestakuntza-jardueren gai-zerrenda.
3. Autoprestakuntzarako emandako prestakuntza materialak.
4. Erabilitako zabalkunde-neurrien egiaztagiriak.

d) Tutoreak edo tutoreek egindako jardueren deskribapena.
e) Diruz lagundu den jardueraren gastuen zerrenda sailkatua.
Diruz lagundutako proiektuari egotzitako sarrera-gastuen egoera-orria. Gastu egozgarriak izango dira, hain zuzen ere, 9. oinarrian aipatzen diren moduluak egiaztatzearen ondorioz sortutakoak.
3. 2024ko urriaren 31 baino lehen, 34/2010 Foru Dekretuaren 57. artikuluak arautzen duen justifikazio-kontua aurkeztu beharko du Internet bidez, Enplegua, Gizarte Kohesioa eta Berdintasuna Sustatzeko Sailaren Bulego Birtualaren bidez, egindako jardueren kostua justifikatzen duen memoria ekonomikoarekin eta gastuen egiaztagiriekin batera:
a) Diruz lagundutako proiektuari egotzitako sarrera-gastuen egoera-orria. Gastu egozgarriak izango dira, hain zuzen ere, 9. artikuluan aipatzen diren moduluak egiaztatzearen ondorioz sortutakoak.
b) Dirulaguntzaren zenbatekoa, jarduketa-memorian kuantifikatutako jarduerak eta 18. oinarrian ezarritako moduluak oinarri kalkulatua.
c) Aurreko a) letran aipatzen den sarreren egoera-orria osatzen duten partida bakoitzeko, diruz lagundutako proiektua finantzatu duten beste dirulaguntza, laguntza, sarrera edo baliabide batzuen zerrenda xehakatua, baita eskatzen den finantzaketa propioarena ere, bakoitzaren zenbatekoa eta jatorria adierazita.

d) Hala badagokio, aplikatu gabeko soberakinen itzulketaren ordainketa-gutuna.
e) 23. oinarrian («Emandako dirulaguntzak publiko egitea») eta 24. oinarrian («Onuradunak eman zaion dirulaguntzaren zabalkundea egitea») jasotako zabalkunde-neurrien egiaztagiriak.
4. Justifikazioari buruzko agiriak zehaztutako epearen barruan aurkezten ez badira, 12. oinarrian eta hurrengoetan ezarritako prozedura hasiko da.

c) Memoria de las acciones formativas realizadas. Dicha memoria contendrá la siguiente documentación:
1º Memoria descriptiva de cada acción formativa

2º Temario de las acciones formativas.
3º Materiales formativos entregados para la autoformación.
4º Documentación acreditativa de las medidas de difusión utilizadas.
d) Descripción de las actividades realizadas por la persona o personas tutoras.
e) Una relación clasificada de los gastos de la actividad subvencionada.
Un estado de ingresos y gastos imputados al proyecto subvencionado. Los gastos imputables serán los que resulten de la acreditación de los módulos señalados en la Base 9.
3. Con anterioridad al 30 de setiembre de 2026, deberá presentar por internet, a través de la Oficina Virtual de Empleo, Cohesión Social e Igualdad, la cuenta justificativa, que regula el artículo 57 del Decreto foral 34/2010, junto con los justificantes de gasto y la memoria económica justificativa del coste de las actividades realizadas, que contendrá:

a) Un estado de ingresos y gastos imputados al proyecto subvencionado. Los gastos imputables serán los que resulten de la acreditación de los módulos señalados en la Base 18.
b) Cuantía de la subvención calculada sobre la base de las actividades cuantificadas en la memoria de actuación y los módulos contemplados en la Base 18.
c) Un detalle de las subvenciones, ayudas, ingresos o recursos, incluida la financiación propia exigida, en su caso, que hayan financiado el proyecto subvencionado, por cada una de las partidas que componen el estado de ingresos señalado en el apartado a) anterior, con indicación del importe y su procedencia.

d) En su caso, la carta de pago de reintegro en el supuesto de remanentes no aplicados.
e) Documentación acreditativa de las medidas de difusión previstas en la base 23 "Publicidad de las subvenciones concedidas" y Base 24 "Difusión de la subvención concedida por la persona beneficiaria".
4. En el supuesto de que la documentación relativa a la justificación no se presentará en los plazos establecidos se iniciará el procedimiento previsto en la base 12 y siguientes.

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: CBPH-2OAL-0915-VAZY
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

5. Erakunde onuradunak dokumentazio hau gorde beharko du:

a) Prestakuntzara bertaratu izanaren egiaztagiria, edo, hala badagokio, gaitasuna egiaztatzeko parte-hartzaileei emandako ziurtagiria, 20. oinarrian ezarritakoarekin bat.

b) Parte-hartzaileen hartze-agiria, 20. oinarrian ezarritakoaren arabera.
c) Parte-hartzailea 2. oinarrian adierazitako kolektiboaren barruan dagoela egiaztatzeko agiria.

Bizkaiko parte-hartzaileen helbidea prestakuntzaren hasieran egiaztatuko da errolda ziurtagiriaren bidez.

d) Egindako prestakuntza-jarduera bakoitzeko, bertaratze-kontroleko orrien kopia.

30. oinarria. *Dirulaguntza ordaintzea*
1. Emandako laguntza epe hauetan ordainduko da:

a) Dirulaguntza ematen den unean, gehienez dirulaguntzaren % 85 ordainduko da,.

b) Dirulaguntzaren gainerako portzentajea 2026. urtean ordainduko da, ekintzak garatzeko emandako laguntzaren justifikazioa egindakoan (gehienez, 2026ko ekainaren 30erako); horretarako, 29. artikuluan zehaztutako frogagiriak aurkeztu behar dira.

Frogagiriak 29. oinarrian jasotako epeen barruan aurkeztu ezean, 11. oinarrian eta hurrengoetan xedatutako prozedura hasiko da.

2. Betebeharra aitortu eta dirulaguntza ordaindu aurretik, erakunde onuradunek zerga-betebeharrak nahiz zuzenbide publikoko gainerakoak eta, hala badagokio, Gizarte Segurantzarekikoak ere bete dituztela egiaztatuko da.

Egindako egiaztapenaren bidez ikusten bada erakunde onuradunak ez dituela egunean zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak, 12. oinarrian eta hurrengoetan ez-betetzeetarako ezarri den prozedura hasiko da, eta ohartaraziko zaio ezen eman zitzaion laguntzaren zenbatekoa kobratzeko eskubidea galduko duela, eta emaniko kopurua doitu egin beharko zaiola.

5. La entidad beneficiaria deberá de conservar la siguiente documentación:

a) Copia del certificado de asistencia a la formación o, en su caso, documento acreditativo de aptitud entregado a las personas participantes, conforme a la base 20.

b) El recibí de las personas participantes, de acuerdo con lo establecido en la base 20.
c) Documentación acreditativa de la pertenencia de la persona participante al colectivo descrito en la base 2.
La residencia de la persona participante en Bizkaia se acreditará, al inicio de la formación, mediante el certificado de empadronamiento.

d) Copia de las hojas de control de asistencia por cada acción formativa.

Base 30. *Pago de la subvención*
1. La ayuda otorgada se abonará en los siguientes plazos:
a) En el momento de concesión de la ayuda, se abonará hasta un máximo del 85% de la subvención otorgada.

b) El porcentaje restante, se abonará en el año 2026, tras la justificación de la ayuda otorgada para el desarrollo de las acciones que deberá realizarse como plazo máximo para el 30 de junio de 2026 mediante la presentación de la documentación justificativa establecida en la Base 29.

En el supuesto de que la documentación relativa a la justificación no se presentará en los plazos previstos en la Base 29 se iniciará el procedimiento previsto en la Base 11 y siguientes.
2. Previo al reconocimiento de la obligación y al pago de la subvención, se comprobará que las entidades beneficiarias se encuentran al corriente de sus obligaciones tributarias y demás de derecho público y, en su caso, frente a la Seguridad Social.

Si como consecuencia de la comprobación efectuada resulta que la entidad beneficiaria no se halla al corriente de sus obligaciones tributarias y de Seguridad Social se iniciará el procedimiento de incumplimiento establecido en la Base 12 y siguientes con el apercibimiento de que perderá el derecho al cobro del importe de la ayuda otorgada de que se trate y con el resultado de reajuste de la cantidad otorgada.

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: CBPH-2OAL-0915-VAZY
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

31. oinarria. *Dirulaguntza beste dirulaguntza batzuekin batera lortzea.*

1. Ezarritako laguntzak jasotzea bateragarria izango da xede bererako estatuko, Europar Batasuneko edo nazioarteko edozein administraziok nahiz erakunde publikok edo pribatuk ematen dituzten laguntza, dirulaguntza, sarrera edo baliabideekin. Hala ere, ezin izango da ekintza bererako dirulaguntza gehiago jaso Bizkaiko Foru Aldundiaren beste programa batetik, azken laguntza horiek bateraezinak izango baitira.

2. Dirulaguntza guztien zenbatekoak ezin izango du inola ere gainditu lagundutako jardueraren kostua, ez berak bakarrik, ezta beste dirulaguntza, laguntza, sarrera edo baliabide batzuekin batera ere.

Erakunde onuradunek nahitaez jakinarazi behar diote dirulaguntza eman dien organoari beste dirulaguntza, laguntza, sarrera edo baliabide batzuk lortu dituztela hark diruz lagundu dituen jarduerak finantzatzeko.

Halako laguntza, sarrera edo baliabideak jaso behar direla jakin bezain laster egin behar da jakinarazpen hori, eta betiere jasotako funtsei emandako aplikazioa justifikatu baino lehen.

Jakinarazteko eginbehar hori ez betetzeak dagokion zehapena ekarriko du, 5/2005 Foru Arauaren arabera.

32. oinarria. *Erakunde onuradunaren betebeharrak.*

1. Foru-dekretu honetan dirulaguntzen onuradunentzat ezartzen diren betebeharrez gainera, laguntzak jasotzen dituzten erakunde onuradunek bete beharko dituzte 5/2005 Foru Arauaren 12., 13., 31.5 eta 41. artikuluetan ezarritakoak ere. Besteak beste, honako hauek:

a) Dirulaguntza ematearen funtsa den jarduera egitea edo hartarako jokabidea hartzea.

Esandakoaren ondorioz, laguntzaren erakunde onuradunak bere jarduera uzten badu, ekonomia-jardueretan baja eman duelako, galdu egingo du dirulaguntzaren onuradunaren izaera eta, ondorioz, une horretatik ordaintzeke dagoen kopurua kobratzeko eskubidea ere.

b) Dirulaguntza ematea edo hura lortzea funtsatzen duen jarduera egin dela edo hura egiteko jokabidea hartu dela justifikatzea, bai eta laguntza ematea funtsatu duten baldintzak betetzen direla ere justifikatzea.

Base 31. *Concurrencia con otras subvenciones.*

1. Será compatible la percepción de las ayudas previstas, con la percepción de otras subvenciones, ayudas, ingresos o recursos para la misma finalidad, procedentes de cualesquiera administraciones o entes públicos o privados, nacionales, de la Unión Europea o de organismos internacionales a excepción de la percepción de otra subvención por la misma acción en virtud de otro programa de la Diputación Foral de Bizkaia, en este último supuesto será incompatible.

2. En ningún caso el importe total de las subvenciones podrá ser de tal cuantía que aisladamente, o en concurrencia con otras subvenciones, ayudas, ingresos o recursos, supere el coste de la actividad subvencionada.

Será obligación de las entidades beneficiarias comunicar al órgano concedente, la obtención de otras subvenciones, ayudas, ingresos o recursos que financien las actividades subvencionadas.

Esta comunicación deberá efectuarse tan pronto como se conozca y, en todo caso, con anterioridad a la justificación de la aplicación dada a los fondos percibidos.

El incumplimiento de este deber de comunicación dará lugar a la correspondiente sanción de conformidad con la Norma foral 5/2005.

Base 32. *Obligaciones de la entidad beneficiaria.*

1. Además de las obligaciones previstas en este Decreto foral para las personas beneficiarias de las subvenciones, son obligaciones de las entidades beneficiarias de las ayudas, las previstas en los artículos 12, 13, 31.5 y 41 de la Norma foral 5/2005, siendo entre otras:

a) Realizar la actividad o adoptar el comportamiento que fundamenta la concesión de la subvención.

En consecuencia, si la entidad beneficiaria de la ayuda cesara en la actividad, por baja en actividad económica, perderá la condición de persona beneficiaria de subvención y, en consecuencia, el derecho al cobro de la cantidad pendiente de abono desde ese momento.

b) Justificar ante la entidad concedente, en su caso, la realización de la actividad o la adopción del comportamiento, así como el cumplimiento de los requisitos y condiciones que determinen la concesión o disfrute de la ayuda.

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: CBPH-2OAL-0915-VAZY
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

c) Dirulaguntza eman duen erakundeak egiten dituen egiaztapen-ekintzen pean jartzea, bai eta dirulaguntzen eta laguntzen arloan Ogasun eta Finantza Sailari dagokion finantzen kontrolerako jardueren eta Herri Kontuen Euskal Auzitegiaren fiskalizazio-prozeduren pean ere.

c) El sometimiento a las actuaciones de comprobación, a efectuar por la entidad concedente, en su caso, y a las de control financiero que corresponden al Departamento de Hacienda y Finanzas, en relación con las subvenciones y ayudas concedidas y a los procedimientos fiscalizadores del Tribunal Vasco de Cuentas Públicas.

d) Edozein administrazio edo erakunde publikok, nazionala izan zein nazioartekoa, dirulaguntza edo laguntzaren bat emanez gero xede bererako, dirulaguntza hau eman duen erakundeari horren berri ematea.

d) Comunicar a la entidad concedente, en su caso, la obtención de subvenciones o ayudas para la misma finalidad, procedente de cualesquiera administraciones o entes públicos nacionales o internacionales.

e) Kontabilitateko liburuak, erregistroak eta gainerako agiri guztiak edukitzea (kasu bakoitzean onuradunari aplikatu behar zaizkion merkataritzako eta arloko legerietan ezarritakoaren arabera auditatuak), eta dirulaguntza hauen oinarrietan eskatzen diren kontabilitateko egoera-orri eta erregistro espezifiko guztiak edukitzea, egiaztapen eta kontrol ahalmenen erabilera egokia bermatzeko.

e) Disponer de los libros contables, registros diligenciados y demás documentos debidamente auditados en los términos exigidos por la legislación mercantil y sectorial aplicable al beneficiario en cada caso, así como cuantos estados contables y registros específicos sean exigidos por las bases reguladoras de las subvenciones, con la finalidad de garantizar el adecuado ejercicio de las facultades de comprobación y control.

f) Jasotako funtsen erabilera justifikatzen duten agiriak gordetzea (baita dokumentu elektronikoak ere), ekonomia eta fiskalizazio kontroleko organoek –Europako Gizarte Funtsekoek barne– egiaztapen eta kontrol ekintzetarako erabil ditzaketen neurrian, arlo horretan aplikagarria den araudiak ezartzen duen epean. Izan ere, Merkataritza Kodearen 30. artikuluan xedatutakoaren arabera, liburuetan egindako azken idazpena igaro eta 6 urteko epean gorde beharko dira agiriok.

f) Conservar los documentos justificativos de la aplicación de los fondos recibidos, incluidos los documentos electrónicos, en tanto puedan ser objeto de las actuaciones de comprobación y control por los órganos de control económico y de fiscalización correspondientes, incluidos los del Fondo Social Europeo, durante el plazo al efecto establecido por la normativa aplicable. Documentación que deberá conservarse durante 6 años a partir del último asiento realizado en los libros de conformidad con el artículo 30 del Código de Comercio.

g) Enplegua Sustatzeko Zerbitzuari jakinaraztea entitate adjudikaziodunaren sozietate-izenari dagokion edozein aldaketa, bai eta haren forma juridikoari dagokiona edo bazkideen aldaketari dagokiona eta abar ere.

g) Comunicar al Servicio de Empleo cualquier modificación que afecte a la razón social, a la forma jurídica, o a la variación de las personas socias, etc., de la entidad adjudicataria.

h) Erakunde onuradunak emakumeen eta gizonen tratu berdina eta dirulaguntza honen xede diren baliabideak eskuratzeko berdintasuna bermatuko du. Era berean, material, irudi eta dokumentuetan ezin izango da erabili emakumea diskriminatzen duen irudirik, eta emakumeen eta gizonen berdintasun-balioak, rol aniztasuna eta erantzukidetasuna sustatu beharko dituzte.

h) La entidad beneficiaria garantizará la igualdad de mujeres y hombres en el trato, y en el acceso de los recursos objeto de la presente subvención.

Así mismo, todos los materiales, imágenes y documentación evitarán por completo cualquier imagen discriminatoria de la mujer, y deberán fomentar valores de igualdad, pluralidad de roles y corresponsabilidad entre mujeres y hombres.

i) Laguntza emateko ebazpen-proposamena eman baino lehen zerga-betebeharrak eta, hala dagokionean, Gizarte Segurantzarekikoak egunean dituztela egiaztatu beharko dute.

i) Acreditar con anterioridad a dictarse la propuesta de resolución de concesión que se halla al corriente en el cumplimiento de sus obligaciones tributarias y, en su caso, frente a la Seguridad Social.

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: CBPH-2OAL-0915-VAZY
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

Ezin izango dira onuradun izan lehenago jasotako beste dirulaguntzaren bat itzultzeko ordainketak egunean ez dituztenak.

Dirulaguntza ez da ordainduko harik eta erakunde onuradunak behar bezala egiaztatu arte zerga betebeharrak eta, hala dagokionean, Gizarte Segurantzarekikoak. Horrenbestez, galdu egingo du ordaindu beharreko dirulaguntzaren zenbatekoa kobratzeko eskubidea, eta foru-dekretu honen 11. oinarrian eta hurrengoetan ez-betetzeetarako ezarritako prozedura hasiko da.

2. Edozelan ere, goian aipatu diren inguruabarrak egiaztatzeko, ez da inongo organismoren ziurtagiririk aurkeztu behar. Egoera hauek Enplegua, Gizarte Kohesioa eta Berdintasuna Sustatzeko Sailak egiaztatuko ditu, beti ere abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoa eta urriaren 1eko 39/2015 Legea kontuan hartuta.

3. Erakunde onuradunak, 4/2018 Foru Arauaren 46. artikuluarekin bat, honako inguruabar hauen justifikazio-txostena aurkeztu beharko du, salbu eta interes publikoko arrazoiek justifikatzen badute betebehar horietatik salbuetsita egotea:

a) Pertsona fisiko edo juridikoek emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna sustatu beharko dute lanpostuen definizioan, sarbidean, kontratazioan eta azkentzean, lanbide-sailkapenean, sustapenean, prestakuntzan, laneko segurtasun eta osasunean, ordainsari-politikan, erantzukidetasunean eta bizitza pertsonala, lanekoa eta familiakoa uztartzean, lanaren kalitatean eta egonkortasunean, lanaldiaren iraupenean eta antolamenduan, eta ekintza sindikalean, ordezkaritzan eta negoziazio kolektiboan, lan-baldintza duinak, duinak eta ez-diskriminatzaileak ziurtatuz.

b) Pertsona fisiko edo juridikoek zaindu beharko dute emakumeen eta gizonen tratamendua, protagonismoa eta balorazioa baliokideak izatea, eta berdintasunaren, presentzia orekatuaren, aniztasunaren, erantzukidetasunaren eta rol eta genero-identitate anitzen balioak dituen irudia sustatzen dutela, bai idatzizko informazioan, ahozkoan, ikonografikoan, publizitate-ekintzetan, barne- eta kanpo-komunikazioan, komunikazio formal eta informalean, bai proiektua edo jarduera gauzatzearekin lotutako materialetan.

Tampoco podrá obtener la condición de beneficiaria quien no se halle al corriente de pago de obligaciones por reintegro de subvenciones.

No podrá realizarse el pago de la subvención en tanto la entidad beneficiaria no acredite el cumplimiento de sus obligaciones tributarias y, en su caso, frente a la Seguridad Social, por lo que perderá el derecho al cobro del importe de subvención a pagar, iniciándose el procedimiento de incumplimiento previsto en la base 11 y siguientes de este decreto foral.

2. En todo caso, no habrá de aportarse certificación del organismo correspondiente acreditativo de dichas circunstancias, ya que estas situaciones serán verificadas por el Departamento de Empleo, Cohesión Social e Igualdad, de acuerdo con la Ley Orgánica 3/2018, de 5 de diciembre, así como la Ley 39/2015, de 1 de octubre.

3. La entidad beneficiaria, de conformidad con el artículo 46 de la Norma foral 4/2018, salvo que razones de interés público justifiquen la exención de estas obligaciones, deberá presentar informe justificativo de las siguientes circunstancias:

a) Las personas físicas o jurídicas deberán promover la igualdad de mujeres y hombres en la definición de los puestos de trabajo, acceso, contratación y extinción, clasificación profesional, promoción, formación, seguridad y salud laboral, política retributiva, corresponsabilidad y conciliación de la vida personal, laboral y familiar, calidad y estabilidad laboral, duración y ordenación de la jornada laboral, y en la acción sindical, representación y negociación colectiva, asegurando unas condiciones laborales dignas, decentes y no discriminatorias.

b) Las personas físicas o jurídicas deberán velar porque el tratamiento, protagonismo y valoración de mujeres y hombres sea equivalente y el fomento de una imagen con valores de igualdad, presencia equilibrada, diversidad, corresponsabilidad, y pluralidad de roles e identidades de género, tanto en la información escrita, oral, iconográfica, acciones publicitarias, comunicación interna y externa, formal e informal como en los materiales generados o relacionados con la ejecución del proyecto o actividad.

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: CBPH-2OAL-0915-VAZY
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

c) Plantillan 50 langile baino gehiago dituzten pertsona fisiko edo juridikoek Emakumeen eta Gizonen Berdintasun Eragingarrirako martxoaren 22ko 3/2007 Legean aurreikusitako Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Plana edukitzeko betebeharra betetzen dutela egiaztatu beharko dute, bai eta plan hori benetan aplikatzen dela ere.

d) Plantillan hamabost langile baino gehiago dituzten pertsona fisiko edo juridikoek lan-eremuan indarkeria matxista prebenitzeko, jarduteko, jarraipena egiteko, ebaluatzeko eta desagerrarazteko neurriak hartuko direla bermatu beharko dute, bereziki sexu-jazarpenari eta sexuan oinarritutako jazarpenari buruzkoak.

c) Las personas físicas o jurídicas con una plantilla superior a 50 personas deberán acreditar el cumplimiento de la obligación de disponer de un Plan para la Igualdad de mujeres y hombres previsto en la Ley 3/2007, de 22 de marzo, para la Igualdad Efectiva de Mujeres y Hombres, así como de su aplicación efectiva.

d) Las personas físicas o jurídicas con más de quince personas trabajadoras en plantilla deberán garantizar la adopción de medidas para prevenir, actuar, dar seguimiento, evaluar y erradicar la violencia machista en el ámbito laboral, y específicamente las relativas al acoso sexual y acoso por razón de sexo.

4. Erakunde onuradunek euskara erabili beharko dute diruz lagundutako jardueraren ondoriozko esku-hartze publiko guztietan.

4. Las entidades beneficiarias deberán utilizar el euskera en todas las intervenciones públicas resultantes de la actividad subvencionada.

5. Erakunde onuradunek beren jardueraren berri herritarrei emateko erabiltzen dituzten liburuxka, kartel edo beste edozein euskarritan bi hizkuntza ofizialak erabili beharko dira.

5. En todos los folletos, carteles o cualquier otro soporte utilizado por las entidades beneficiarias para dar publicidad de su actividad a la ciudadanía deberán utilizarse las dos lenguas oficiales

33. oinarria. *Datuen babesa.*

Interesdunak emandako datuak foru dekretu honetatik eratorritako prozedurak kudeatzeko erabiliko dira, 2016ko apirilaren 27ko 2016/679 (EB) Erregelamenduan (datu pertsonalen tratamenduari eta datu horien zirkulazio askeari dagokienez pertsona fisikoak babesteari buruzkoa) eta abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoan (Datu Pertsonalak Babesteari eta eskubide digitalak bermatzeari buruzkoa) ezarritakoaren arabera.

Tratamenduaren arduraduna Enplegua, Gizarte Kohesioa eta Berdintasuna Sustatzeko Saileko Enplegu Zuzendaritza Nagusia da (Mazarredo zumarkalea 63, 48009 Bilbo), eta Datuak Babesteko ordezkaria Aholkularitza Juridikoaren, Informazioaren Segurtasunaren eta Datuen Babesaren Atala da (Kale Nagusia, 25, 48009 Bilbo).

Tratamendu hori egiteko, ahal publikoak erabiliko dira eta legezko betebeharrak beteko dira.

Base 33. *Protección de Datos.*

Los datos aportados por la persona interesada se utilizarán para la gestión de los procedimientos que se deriven de este decreto foral, de acuerdo con lo establecido en el Reglamento (UE) 2016/679, de 27 abril de 2016, relativo a la protección de las personas físicas en lo que respecta al tratamiento de datos personales y a la libre circulación de estos datos y la Ley Orgánica 3/2018 de 5 de diciembre de Protección de Datos Personales y garantía de los derechos digitales.

El responsable del tratamiento es la Dirección General de Empleo, del Departamento de Empleo, Cohesión Social e Igualdad (Alameda Mazarredo 63, 48009 Bilbao) y la persona delegada de Protección de Datos es la Sección de Asesoramiento Jurídico, Seguridad de la Información y Protección de Datos - Gran Vía, 25, 48009 Bilbao.

Dicho tratamiento se realizará en el ejercicio de potestades públicas y el cumplimiento de obligaciones legales.

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: CBPH-2OAL-0915-VAZY
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

Bildutako datuak Bizkaiko Lurralde Historikoan enplegagarritasuna sustatzeko jarduerak sustatzeko dirulaguntzak kudeatzeko erabiliko dira.

Los datos recabados serán utilizados para la gestión de subvenciones de fomento de actividades encaminadas a promover la ocupabilidad en el Territorio Histórico de Bizkaia.

Ez da datu pertsonalik lagako, legez behartuta edo interesdunaren baimenarekin izan ezik. Era berean, ez da aurreikusten hirugarren herrialdeetara edo nazioarteko erakundeetara transferitzea.

No se realizarán cesiones de datos personales, salvo por obligación legal o consentimiento de la persona interesada. Tampoco se prevén transferencias a terceros países u organizaciones internacionales.

Interesdunak eskubidea du bere datuak eskuratzeko, zuzentzeko, ezabatzeko edo tratamendua mugatzeko edo haren aurka egiteko. Era berean, emandako baimena edozein unetan baliogabetu ahal izango du. Era berean, eskubidea du Datuak Babesteko Kontrol Agintaritzan erreklamazio bat aurkezteko, eta informazio hori zabaldu egin daiteke Bizkaiko Foru Aldundiaren web orri instituzionaleko datuen babesari buruzko atalean (https://web.bizkaia.eus/es/proteccion-de-datos).

La persona interesada tiene derecho a acceder a sus datos, solicitar su rectificación, supresión o la limitación u oposición al tratamiento. De igual modo, podrá revocar el consentimiento prestado en cualquier momento. También dispone del derecho a presentar una reclamación ante la Autoridad de Control de Protección de Datos, pudiendo ampliar esta información en el apartado dedicado a la protección de datos de la página web institucional de la Diputación Foral de Bizkaia (https://web.bizkaia.eus/es/proteccion-de-datos).

34. oinarria. *Deslokalizazioa.*

1. Erakunde onuradunek beren gain hartzen dute enpresa-deslokalizaziorik ez egiteko konpromisoa. Halakotzat hartuko da martxoaren 27ko 7/2007 Foru Arauak, enpresak deslokalizatzen direnean Foru Sektore Publikoak laguntzak berreskuratzeari buruzkoak, ezarritakoa, eta erabat aplikagarria izango da foru dekretu honetan araututako dirulaguntzetan.

2. Konpromiso hori ez betetzea Bizkaiko Foru Aldundiaren erabaki bidez adieraziko da, eta emandako dirulaguntza itzultzeko arrazoia izango da, aipatutako foru arauan aurreikusitako prozedura aplikatuz.

Base 34. *Deslocalización.*

1. Las entidades que resulten beneficiarias asumen el compromiso de no incurrir en deslocalización empresarial, entendiendo por tal lo prevenido en la Norma foral 7/2007 de 27 de marzo, de Recuperación de ayudas del Sector Público Foral en el supuesto de deslocalizaciones empresariales, la cual será de plena aplicabilidad a las subvenciones reguladas por el presente Decreto foral.

2. El incumplimiento de este compromiso será declarado mediante acuerdo de la Diputación Foral de Bizkaia y constituirá causa de reintegro de la subvención concedida, aplicándose el procedimiento previsto en la citada Norma foral.

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: CBPH-2OAL-0915-VAZY
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

## I. ERANSKINA/ ANEXO I

| Prestakuntza-modulua/ Módulo Formativo | Autoprestakuntza/ Autoformación | Talde-gaikuntza/ Capacitación grupal | Guztira/ Total |
|---|---|---|---|
| MF1018_2 Osasun-arreta gizarte-erakundeetan/ MF1018_2 Atención sanitaria en instituciones sociales | 46 | 14 | 60 |
| MF2259_2 Arreta pertsonaleko esku-hartzeen garapena/ MF2259_2 Desarrollo de las intervenciones de atención personal | 47 | 13 | 60 |
| MF2260_2 Mendekotasuna eta/edo desgaitasuna duten pertsonentzako arreta biopsikosoziala/ MF2260_2 Atención biopsicosocial a personas en situación de dependencia y/o con discapacidad | 94 | 26 | 120 |
| MF2261_2 Mendekotasuna eta/edo desgaitasuna duten pertsonei eguneroko bizitzako oinarrizko jardueretan laguntzea/ MF2261_2 Apoyos en las Actividades Básicas de la Vida Diaria (ABVD) a personas en situación de dependencia y7o con discapacidad | 124 | 26 | 150 |
| MF2262_2 Mendekotasuna eta/edo desgaitasuna duten pertsonei eguneroko bizitzako jarduera instrumentaletan laguntzea/ MF2262_2 Apoyos en las Actividades Instrumentales de la vida diaria a personas en situación de dependencia y/o con discapacidad | 74 | 16 | 90 |
| MF0272_2 Lehen sorospenak/ MF0272_2 Primeros auxilios | 51 | 9 | 60 |
| GUZTIRA/ TOTAL | 436 | 104 | 540 |
| | | | |

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: CBPH-2OAL-0915-VAZY
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus